



# anaitasuna

1976. EKO UZTAILAREN 15. EKOA  
321. ZENBAKIA · 25 PTA

**foruek,  
100 urte:  
amnistiak,  
zenbat?**



# EUSKAL HERRIKO ATE ERAKUSKETARIK HAUNDIENA

*José de Ezpeleta, S. A.*

EUSKAL HERRIKO ATE ERAKUSKETARIK HAUNDIENA

JOSE DE EZPELETA, S.A.  
ATEAK - PANELAK - HOLTZAK

**BILBON**  
Oficina central  
Príncipe, 5  
Tif: 4230930

**ETXEBARRIN**  
Carretera Bilbao - San Sebastián Km. 4'5  
Edificio Saga  
Tifs: 4493143 - 4495058

**BALMASEDAN**  
Correría, 47  
Tif: 6800604

**ZARAUTZEN**  
Polígono Industrial, s/n  
Tifs: 841013 - 841906

**GASTEIZEN**  
Urartea, 12  
Polígono Industrial Aligobeo.  
Tifs. 243850 - 54

**BILBOKO ERAKUSKETA**  
Buenos Aires, 1 - bajo.  
(Sotano Aviaco)  
Tif: 4219811

Aldizkari hau irakurri nahi baduzu, bete ezazu argi argi

ondoko txartela eta bidal helbide hontara:

ANAITASUNA - Pelota, 4-1.º

Apart. 495 - Bilbao-5

Izen-deiturak .....

Bizilekua .....

Herria .....

Probintzia ..... Tel .....

## anaitasuna

Bizkaia  
hamabosteroakoa

ZUZENDARIA:

Joan Mari Torrealday

**Urteko abonamendua:**

Bertorako ..... 500 pezeta  
Latin Amerikarako ..... 550 pezeta  
Europa eta Ipar Amerikarako ..... 700 pezeta

**Ale bakoitza:** 25 pezeta.

HELBIDEA:

Pelota, 4-1.º, Bilbao-5  
Posta kaxa 495. tel. 4237449



- 3 Editoriala
- 4 Tantaka
- 5-23 FORUAK
- 5 Foruak zer diren
- 6 Foru berriak
- 7 Soberania errespetatu
- 8 Gauzak mailaka
- 8 Hego-ipar lokarriak
- 9 Askatasunaren gorputzera
- 10 Foruak gaurkotzeko zenbait baldintza
- 13 Euskal foruak Espainiako Gorteetan
- 15 Foruak, karlistak eta liberalak
- 17 Foruak ipar aldean
- 19 Bi mende
- 20 Foru burruka gaur
- 22 Augustin Xaho karlistadan
- 23 Foruak: mito eta errealitate
- EUSKAL HERRIAN
- 24 50.000 lagun Donostian
- 25 150.000 manifestari Bilbon
- 26 Santurtzin ere odola
- 28 24 ordu pezetaz
- 30 S. Marzialeako tiroak
- 30 E. S. B. Bizkaian agertu da
- 31 Donostia eta Pasai Antxo
- 31 Galeusca Pasaian
- 32 Iruinea
- 33 Hizkuntzalaritza eta literatur mintegia
- 34 Nuklear zentralik ez
- 35 Medikuntz fakultatea eta selektibitatea
- ERLIJIOA
- 36 Amnistiaz
- 37 Postaz etorriak
- 38 Zapaburu birbirtua
- 38 Hizkuntza

Maketapena: Fernando  
 Marrazkiak: Fernando eta Olariaga.  
 Moldiztegia: Eléxpuru Hnos. S. A.  
 San Martín, 153 - ZAMMDIO  
 Depósito legal: BI 1753-1967

# 1876 1976 ehun urte forurik gabe



Inork hala erabaki gabe, Euskal Foruen urtea dela aurtengo hau esan genezake. Han eta hemen egin diren bilkurak, eman diren hitzal-diak, arazoak harrotu dituen iskanbilak lekuko. Zenbait erakundek eta taldek postura hartu dute, zenbait pertsonaien jokabidea ere hobeki-xeago ezagutzen dugu orain. Nonahi hedatu diren eskabideen artean, ezagunenak Udaletxeenak dira, Dergarakoa aurrelari izan delarik. Ekarriko al du ondoren burruka honek!

Uztail honen 21ean dugu hain zuzen Lege Zaharra erauzi zutenaren Mendehurrena. Eta mendehurren hau dela eta, egun hautan ospakizunik ez da faltako. Protesta girokoak izan beharko, 1876an gertatua ez bait aguretzat festagarri. Urte horretan Foruen azken aztarrenak Canovas-ek desegin zituelarik, geroztik izen horrekin ezagutu ditugunak izena dute holakoa, ez izana.

Foruekin batean, nolabait esateko, bere buruaren jabetasuna galdu zuen Euskal Herriak. Honek ikaragarri baldintzatu du herriaren egoera eta etorkizuna. Izan ere, bere erakundeak galduz gero eta askatasunik eskasena zuen garaian gertatu izan dira Euskal Herriarentzako hain garrantzizko diren gertakizun batzu, adibidez, industriakuntza eta demografiatzko mugimendua, Euskal Herria hazi, berritu, aldatu eta indartu den garaian, herriak berak ez du hori bere gisara gidatzerik izan.

Baina zer dira Foruak? Ezagutzapen horretantxe sakontzen laguntzeko eratu dugu, ba, zenbaki hau. Hau gertatzen baita: gutako gutik dakiela Foruen berri zehatzik. Eta nola jakin ere, geure historia ezagutzeara sistimatikoki ukatu egin bait zaigu? Urrutiko eta herri arrotzen historia, eta Madrilekoa eta Parisekoa, geurea baino askoz ere ñabardura gehiagorekin erakutsi digute. Foruak zer ote, beraz?

Honetzat, Foruak mito eta amets dira. Harentzat, gobernu modu arkaiko bat. Hirugarrenarentzat, Herri gobernu demokratikoa.

Gaur egun, Foruen aldeko burruka aurrera eraman nahian dabiltzaren artean gauza pare bat nabari da: antizentralismoa, Euskal Herriari dagozkion erakunde premia, eta Foruak oroigarri bailiran ez baino funtzional eta erabilgarri bezala hartzeko erabakia. Gure inguru soziala, kulturala, politikoa, 1876tik hona arras aldatu da. Foruak ere, beraz, egoeraren aldakuntzaren arauera egokitu behar dira. Gaurkotu. Hauzia, ikusgaitu honetatik, beste ezer baino gehiago, politikazkoa da. Horrexegatik galdetu diegu Euskal Herrian ari diren alderdi politikoei ea Foruei buruz zer pentsatzen duten.







## PSOE ala PSDE?.

Horixe da gero eta gehiagok hor zehar egiten duten galdera. Sigla eta izen kontutan, jakina, edari markatan bezalaxe, batzuek besteek baino harrera eta arrakasta hobeak dute, eta, hori dela eta, berez sozialdemokrata garbiak diren zenbait alderdik, beren burua ederztatzeko edo, "sozialista" izen ponpoxoa hautatzen dute.

**Cognac eta Brandy** ez dira gauza bera. Hor etiketa aldatzeak ez du balio barrukoak lehengoan irauten badu. Felipe González eta Múgica Herzog jaunen alderdiak daraman jokabidea eta daukan programa, europar homologapen batetan, sozialdemokraziatik ez dira pasatzen. Alemaniatik datorkion dirua, bestalde, ba dakigu nortzuringandikoa den Gauzak argi.

## GORBEAN JAI

Uztailaren 11an, igandea, Gorbeako gurutzaren 75. urtea ospatu zen gure mendi horretan. Bertan izan ziren jaiak alaiak izan ziren, nai ziren eta helikoptero batek bi aldiz jendearen buru inguruetatik igaro, han bildutako lagunen oiltu eta asarreak piztuaz. Aste guztian Gorbeako gurutzan jarritako espainiar bandera (sasi-bonba bat zuen zintzilik) iganderako kendua izan zen eta baita gurutzea gure margoen zintzaz hornitua.

## ATHLETIC ren ELKARTEAK EUSKARAZ

Beren bilera nagusia ezaguarazteko argitaratu dituzten afitxak euskaraz eta erderaz egin dituzte Athletic penintsulan dituen lagun-elkartek. Orain dela bi hilabete "Anaitasunak" "Noiz euskara Athletic' en"? galdera egin zuten. Hara hemen lehen erantzuna, nahi zuten erantzun hori lagun-elkarteen aldetik etorri eta ez Athletic aldearengatik.



## "GOIZALDI", EUROPAR

Uztaila "europatar" bat izan du Donostiako "Goizaldi" dantza taldeak. Uztailaren lehenengoan Toursen saio bat izan zuten; 3an, Nancy inguruetako herrirka batetan; 6an, Dinamarkako Horsens urian, "XII Folkloreter Jaialdian"; Bulgaria, Polonia, Frantzia, Alemania, Holanda, Suisa, Belgika eta beste herritako taldeekin batera. Berritako gure dantzak Europa guztian ikusiak izan dira, euskal nortasunaren agergerri on bat bezala.

## Aurtengo Agirre Saria

Jose Antonio Agirre Saria hiru urtetik behin ematen da. Aurtengoa Jaime Kerexeta apez jaunaren I eta II mendeko Eliz gurasoen idazkiak izeneko liburuari eman zaio.

Sortu zenetik, J.A. Agirre saria, hutsik egin gabe, idazle erlijioso edo eta gai erlijiosoen idazleei eman zaie beti. Gabriel Aresti defuntuak zioenez, "ez da harritzeko, horren bidez Gobierno de Euzkadi-koek euskal kleroari beren diru kontribuzioa ordaindu nahiko diote eta".

Zahar izatea eta zaharkiturik egotea gauza bat da, baina 1976.ean I eta II mendeko obra batzuren itzulpena egungo euskal literaturaren eredutzat ipini nahi izatea besterik da: psykiatra on baten falta.

## URKIOLA

Joan zen Ekainaren 28an, Urkiolan sekulako Euskal Jai bat

gertu zen. Bost mila entzule aurrean gure abeslari onenetakoak egon ziren:

Urkiolan ikusitako euskal giroa ezin da hitz guttiz adierazi. Esan dezagun hala ere han egon zirenak, garrasiz eta kantaz, abotsa galdu zutela eta Urkiolan agertu zen ikurrina pilaka txaloturik beren eskuek kea bota zutela. Han zeuden poliziek ez zuten ia ezer egin. Zerbait egin nahi izan zutenean han entzundako garrasiak gogorak izan ziren. "Noiz izango dugu beste euskal jai bat Urkiolan". Hauxe da han egon zirenak behin eta berriro galdetzen dutena.

## DEUSTUKO JAI

Ekainaren 27, 28, eta 29 egunetan Deustuko herriak beren San Pedroko Jai Nagusiak ospatu zituen. Bai, bai, azkenean izan ziren, ekainean eta San Pedroko zubiaren erdian. Hala eta guztiz ere, Deustukoak herriko jaietan alaitu zitzaizkigun.

Jai haiei giro berezi bat eman nahi izan diegu, lehenengo San Joseko Jaiak Gasteizko gertakizunengatik etendu baitakien.

Udako zubia utzi eta Deustu bertan geratu ziren lagunak jaien barruan parte nagusiena hartu zuten, haien egilea izaten. Jaietako ekintzalaria herria izanez gero, herriko agerkundearen iraukortasuna abertzaletasuna izan da. Jaietako karteetatik, euskaraz bakarrik jaiak zabalitzen, San Pedro egunean ordu bikoan plazan egon zen ikurrinaraino, gazte mardoen euskalduntasunatik pasatzen, batzutan hartua izaten eta bestetan tikiagou baina, gero eta gero, euskalduntasuna, Euskal Herriko gaurkotatuenaren barruan gaudela erakutsi digute beriz.

Halaber, popularrak deitzen diren talde txiki zenbait, aski ezagunak, gure kulturarengatik haien axolagabekeria azaleratzen, herriko agerkundetik at egon direla esan daiteke.

Antolatzaileei gure zorionak.





# FORUAK zer diren

Sail honetan, eta izenpuru honekin, Euskal Foruen ezagutzapen bat eman nahi genuen, oinarrizko ezagutzapen erabilgarri bat. Horretarako lana bi aldiz eskatu genion Gregorio Monreal jaunari. Eta ez dugu erantzunik ere jaso. Gauzak horrela, irakurlearen onerako, eta zenbakiaren osotasunerako, artikulu egoki bat bilatu dugu. Joxe Mari Eizagirre-Garaikoarena da berau, eta LUR ETA GIZON, EUSKAL HERRIA, JAKINen liburuan argitaratu zuen. Beraz, hemen JAKIN argitaletxearen baimenarekin ematen dugun hau, "Euskal Lege Zaharra" izenarekin ateratako lan handiago baten lehen parte da.

Noiz eta nola sortu zen Lege Zaharra?

Lehentxoago Foruen jatorrizko etorkiaz mintzatu gara. Baina noiztik mintzatu izan da **Foruei** buruz? Foru haroaren hastapenak, euskal herrialdeak inguruko Erresumekin erregebatu ziren garaian ezarri ohi dira. Baina gogoan har dezagun herrialde bakoitza garai desberdinetan elkartu zela inguruko Erreinu haiekin. Honela, Gipuzkoa eta Gazteizko hiria 1200 urteko urriaren 8an erregebatu ziren Gaztelakoarekin. Arabako herrialdeak berriz, 1332 urteko apirilaren 2an, eta Bizkai 1379ean, hau da, Gaztelako Pedro Krudela, ondarez, Bizkaiko Jaun gertatu zenean. Bestalde, Nafarroarena geroagokoa da: 1521ekoa, Karlos I.ak harma bidez Erresuma hartu zuenekoa. Nafarroa Behereak edo 6. Merinaldeak oraindik denboraldiren batean beregain irauten zuen Albret-eko Joana Erregina beraren agintaritzapean. Geroago egiten zen Frantziako Erresumarekin elkartzea. Lapurdi eta Zuberoaren elkartzea, berriz, 1450 inguruan egina zen.

Lege Zaharraren gobernabidea- ren jaiotordua, hain zuzen atzerriko Erreinuekin egin zen batasun-molde haien sasoiari ipintzen da, izan ere —gezurra badirudi ere— egokiera hartan euskal herrialdeek beren Zuzen (Deretxo) jator eta berezia gorde egin bait zuten. Horrela, Erreinu haien itunkide eta kontratu-lagun gertatu zirenarren, betidanik zetorkien erakunde autonomu hura ez zuten inolara ere galgu. Honela, ba, ondoriobidez, Erreinuaren barnean ere halako apartekotasun bat zuten euskal herrialdeek. Gobernabide berezi horri gaztelaniaz **Fuero** edo **Fueros** deitu izan zitzaion. Foruzko Gobernabide hura, beraz, batasun bat zen, baina Erreinu batekin baino hobeiki Errege-ekin egiten zen batasuna.

Zenbaitetan halako batasun- itunaren gutun edo agiria gorde ere egin da. Halanola Arabakoa, Erregeren eta herrialde honen arteko itunaren gutuna Gazteizko Herrialde-etxean gordea egon da **Diaz de Arkaia**-k esaten. Bestetan, berriz, ez dugu aurkitzen inolako gutun edo agiri baten aztarnarik, Gipuzkoan esate baterako. Dena dela, historigile guztiak —euskaldun nahiz erdaldun— bat dutoz, halako batasun egunetan beti egin zela juramenduzko itun bat aitortzean. Hau da, beti izan zela halakotan herrialdearen eta Errege onartuaren arteko elkar-hitzemate bat. Hain zuzen, emandako hitzaren aterpean gorde zituzten euskaldunek beren Lege Zaharrak, hots, beren Zuzen berezia.

Esan denaren arabera, Lege Zaharraren Kostituzioaren funtsa bi pilaretan tinkatzen zen, Erregeren hitzemanen eta euskal herrialde baten borandatean. Eta hau bera gertatzen da Nafarroa Garaiko kasuan ere; izan ere, Nafarroaren batasuna harma bidez egina izanarren, Gaztelako Errege barrengo nafar erakundea betiko bere jatorrasunean utzi zuen. Honegatik, lehenbiziko Karlistadara arte Nafarroako Gorteak biltzen jarraiki ziren, beren lege-ahalmena beti bezala erabiliaz.

Aipaturiko itunak bi alderdi zegozkienak zirela esan dugu, eta akordio haiek, horregatik, aldaezinak ziren zuzenez bi aldeon baieskorik gabe. Eskuarki honela ikusi izan dira akordio hauek, hori da behintzat teoriarik zabalduena. Foruen etsaiek, ordea, Erregeren gonfirmazio beharra gogorazi ohi zuten.

Jakina denez, bata bestearen segidan zetozen Erregeek gonfirmatu egin ohi zituzten Euskal Herriko Foruak. Gipuzkoan, adibidez, IV Hendrikeren garaitik (hau da, izan ere, ezagutzen dugun gonfirmaziorik zaharrena) Errege guztiak gonfirmatzen zuten Lege Zaharra. Jokabide hau dela eta, Foruen etzaien ustetan, Erregeren eskuetan zegoen Lege Zaharren jarraipena. Haiek ziotenez, Foruek —irauteko— Errege bakoitzaren baimena behar zuten. Honela, ba, zertorren Errege bakoitzak **ex-novo**, ezerezetik alegia, sortzen zuen berriz ere Forua. Dena dela, arazo honen azterketa oinarritzakoago batek teoria horren funtsik eza agertzen digu beharhala.

Foruen gonfirmapena —ongi ikusi nahi bada— Legeriaren zihurtasun behar baten arazoa zen. Izan ere, garai haietan ez zen erraza gertatzen zein lege zeuden tink jakitea. Hau zela eta, Errege bakoitzak, gonfirmazio bidez adierazten zuen zein lege ziren oraindik gorde beharreko, eta, zein ez. Hauzitegi eta Gantzelerietan nahasian zebiltzen hainbeste lege eta gutunetan ez galtzeko era bat zen hura. Bestalde, **Ancien Regime** delakoan, Errege bakoitzak bere aurreragokoen legeak gonfirmatzeko ohitura zuen, es bait zen gaurko Herriarteko Zuzenaren printzipioa (aurrekoen hitzemanak eta betebeharrak ondorengo Gobernuak ere gorde behar dituztela, alegia) oraindik ezagutzen. 1838tik aurrera (Kostituziodun Monarkia modernutan, esan nahi dut) ez ziren batere premiazkoak gonfirmapen haiek, legeak beren bildumetan poliki jasoak zeudelako.

Honegatixe da ulergarri VI Fernando Erregeak, 1725go urriaren 8an. Gipuzkoaren batasun-ituna borondatezkoa izan zela aitortzea. Eta, 1806an, Gaztelako Kontseiluak ere eman zuen bere iritzia puntu hontaz, batasun hura hasieran bi alderen konponbide bat izan zela idatziaz.



## «FORU BERRIAK»

Euskal Herriko Alderdi Sozialistak bere helburu nagusiak hauek ditu:

- 1) Euskal Herriaren soberania eta bateratzea eta
- 2) Euskal langileria beraren lanaren ondorioen jabe bilakatzea. Helburu horien argitan aztertu behar ditu foruak, eta beraz, onhar edo gaitzets. Gure Herrian izan diren, gelditzen diren edo izanen diren foruak nahiz beste erakunde guztiak —foruak zein estatutuak— onak dira Euskal Langile Herria zerbitzatzen duten edo zerbitza dezaketen neurrian.

### 1.— Euskal foruek, zuen pentsaeran, zer adierazten edo errepresentatzen dute?

Gelditu den askatasunaren hondar bat errepresentatzen dute, hobeki esan, prezeskiago, aginte politiko baten ondare lalbur bat, gaur egun politika mailan bazterturik, edo bigarren mailako eginkizunetara bultzaturik, ezinbestean zokoraturik, ikusten dugun zer bait.

Foruek, azken batez, Euskal Herrian izan zen jabetza politiko autonomoa gure Herriari kenduz joan zaiola adierazten dute, eta bide honetan aspalditan abiaturik, geroago eta guttiago izanen dela, gainera.

Garbi utzi nahi dugu foruak kentzea Euskal Herriko herrialde bakoitzari egindako bortxaketa bat izan dela beti, eta inoiz ere ez zuzenbidea. Zentralismoaren indarkeriaren eta Espainiako oligarkiaren —nahiz oligarkia batzuk euskal deiturak ukan— interesen jokuz. Hemen zera salhatu beharra ere ba dago, foruzale agertzen den burjes handiaskok, Nafarroan eta Araban batez ere, foruei herri indar jator guztia kendurik, beren kapital gosearen mesederako erakunde batzuk besterik ez dutela defendatzen.

### 2.— Zer alternatiba daukazue foruei buruz?

2.1. Foruek, estatutuak edo beste edozein ize nek ez digu horrenbesteko axolarik ematen. Guk geuk, Alderdi Sozialista bat garenez gero, Euskal Langile Herriaren beharrei erantzuteko gai diren erakundeak proposatzen ditugu nahiz eta nahi ez.

2.2. Eperik laburrenean eta Herri osorako, aginte bateratzaile bat behar beharrezkoa ikusten dugu. Ez dugu esan beharrik, noski, aginte horretarako erakundeak demokratikoki aukeratuak izan behar direnik.

2.3. Lan harremanak Euskal Herriko erakunde horren esku izan behar dira. Euskal Langile Herriak zuzenki hautatu behar baititu, langilego mailan eta, honen ondorioz, euskal gizartean daukan zeregin eta lekua.

Euskal Herriko alderdi eta talde politikoek foruei buruz zer pentsatzen duten bere irakurleei agertu nahirik, ANAITASUNAK, PNV, PCE, MCE, LAIA, LAB, ETA-PM, EHAS eta beste zenbaitzuri inkesta bat bidali ukan die, beste zenbaitengana heltzerik ukan ez arren ere.

Horietatik, EHAS, MCE, PCE, ETA-PM eta LABek beren erantzunak bidali dizkigute, ondoren, heldu zaizkigun ordenan argitara ematen ditugunak.

2.4. Ekonomi plangintza, kultur eginkizunak, herri zerbitzuen azpiegiturak, hauzi administralgoaren eraketa, hertzaingoa etab. ere, oso-osorik, bere gain izan behar ditu.

Nork esan lezake baldintza hauk Nafarroako edo eta Arabako egoera foraletan betetzen direnik?

2.5. Hala ere, proposatzen ditugun baldintza edo oinharri horiek Euskal Langile Herriaren nahi eta premia guztiei ez diete osoki erantzuten, guk uste. Gure Alderdiak Euskal Herriko proposatzen dituen azken helburuak, Herriaren soberanian oinarriturik eta beronen autoerabakikuntzaren bitartez eginen den iraultzan datza.

2.6. Foruak historian zehar sorturiko erakunde politiko batzu dira, eta hortaz, Herriaren gaurko beharren textuinguruan azter, begira eta onhar ditzakegu soil-soilki.

### 3.- Gaur foruak posible al dira, eta zein kondiziotan?

Gure ustez, bigarrenean agertzen dira galdera honi buruzko eritzi gehienak. Posible ote diren? Bai, ba litezke. Dauden daudenean, ordea, ez, eta hau gutienezko baldintzatzat. Kontutan eduki behar da, lehengo eta behin, 1839.ean, Esparterok Bergarako Komenioan bortxaz egindako lehen mozketak; 1841.ean, Nafarroari dagokionez, Estatu erdirakoiak eta Diputazioak, lege itunduaren bitartez eta foruen kontra, nafar Herriari kontsultatzeke eta Gorte estamental —eta ez demokratiko— batzuk emandako ahalez, tratu bat egin zutela, foruak indargabetu eta ankilosatzeko. 1876.ean, aldiz, foruak bortxaz deuseztuak izan ziren; eta 1.937. ean, inoizkorik bortxaketa haundienaz, ekonomi kontzertuak —foru ordezkioak zirenak— erabat kenduak izan ziren. Hauk honela, euskal herrialdeek, bateraturik eta libreki, egin beharko dituzkete beren kabuz egungo garaiei dagozkien gaurkoratzeak; ez foru zaharrak beraz, FORU BERRIAK baizik, hots, konstituzio oso eta soberano bat.

Baldintza hauekin, jakina, gure baiezkoa ematen diegu foruei.

Esaten baldin bazaigu —eskuinetik noski— eskatzen ditugunak ez direla propioki foruak, zera erantzun beharko genuke, ea beraiek foruak interes edo sistema baten zerbitzurako ez ote dituzten erabili. Historiaren haro edo garai batzutako gizarte harreman lege batzu izan dira beti foruak. Gaur, gure ustez, euskal gizarte sozialista bat eratzeke orduan, foruek oraindik balio bat eduki dezakete, eta gizarte sozialista horren lege egiturak moldatzean balio dezaketen neurrian onhartzan ditugu guk foruak.





## "SOBERANIA ERRESPETATU"

1.- Zuen eritzian, Foruek, zer adierazten edo errepresentatzen zuten?

Guretzat Nafarroa, Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiaren sistema Politiko-administratibo oso berezi bat adierazten zuten, bakoitza bere berezitasune-kin. Honekin batera, Euskal Herriaren ekspresio ezberdintzailea izanik, gorputz sakonago bat ematea lortu zuten.

Bere karakteristiketatik inportanteenetarikoa, gure eritzian, zera zen: alde batetik, kapitalista-aurreko sozietate bat erregelatzen zutela, hasieran baserri giroan, gero baserri eta merkatalgoan sartua. Bestetik eta haik abolitu artean, probintzi hauetan bizitze-molde berezi bat adierazi zuten.

Foruek bi boteren arteko pakto bat adierazten zuten: alde batetik garai hartako erregearen botere politikoa eta bestetik probintzia bakoitzaren boterea. Biak Forua errespetatzen konprometitzen ziren. Biek zituzten atribuzio bereziak. Biak ekin-tza batetan arduratzen ziren: Erregeak Forua errespetatzea zin egiten zuen eta berehala herriak erregea onhartzea. Zenbait instituzio foralek, kasurako "pase foral" deritzonak, egiztaten zuen zin hura.

Borbontarrak etortzean, foruak eta bere instituzioak ebakitzeko ahalegina hasi zen, edo eta bere ezerezte bilatzen zuen atake osoa, batez ere XIX. mendearen zehar jarraitu zuen asmoa. Mende honetan da hain zuzen, gure herria konbitu zuen foruaren inguruko burruka sortzen denean (zeinean erlijioa, antilibertasuna, bereziki foralak ez ziren gai batzuek dudagabeko indar bat izan zuten, nahiz eta gai hauk foruekin loturik eta nahasturik egon). Botere Estatalak Espainiako Estatuaren batasun konstituzionala egitea nahi zuen. Intento honetan zenbait aspektu aurrerakoiak baita iraultzaileak ere, uniformadore seilu kroniko batekin batera joan ziren, zentralista, eta gehienetan despotikoa. Honen aurrez-aurre jaiki zan nekazalgora, jauntxoeria atzerakoiak eta klero beheak eramanez alde batetik, ete beste alde batetik bere bizitzemolde, alapide-elkarte eta lurak defenditzearen. Burruka hauek, lau probintzien arteko lotura politiko batzuk sortu zituzten, gure nazional identitatea hersten lagundurik, identitate hau errespetatzeko nahiari hasiera emanik.

2.- Zein alternatiba duzue Foruaren aurrean?

Gaur egun libertate politiko nazional eta demokratikoen aldeko burruka garai batetan gaude. Egitura politikoak gure herriaren egoera politiko benetako bat adierazi behar baldin badu, faszismoaren erortzean, errejimen probisional behineko bat lortu behar da autonomia zabal batekin eta autodeterminatze-eskubidearen ezagutze inkodizionalarekin. Euskal Herriak izan behar du, soberanoki, oso konzienteki, arrotz-indar gabe, bere biharamuna

erabakiko duena, horrela nahi badu estatu independente bat osotzea ere bere gain harturik. Beraz, nahi dugu eta proposatzen dugu, Euskadiren prozesu konstitugarri bat, zeinean berehalako eta ahal den autogobernu nazionalaren kapazidaderik zabalenera, autodeterminatze-eskubidea erabili baino lehen egon behar den aldi argigarria heldu ahal gaitzen.

Euskal botereen atribuzio autonomikoei buruz (hots, Euskal Gobernu eta Administrazioa, dugu 1931etik 1936era Euskadin argitzeko izan ziren Estatutoetan oinharritu behar direla, bere aspekturik positibo eta progresistenak hartzen, autonomiarik zabalena, demokraziarik handiena, herriaren partizipaziorik sakonena perfilatzeko; askenez, aspektu berri eta beharrezkoak erasten. Azken 40 urteotan astundu den problematika nazionala konpondu behar denez gero, euskal herriaren historian gure nortasun nazionala ezerezteko egin den entseiturik sistematikoena jasan ondoren, eta aldi horretan aldateta sozio-ekonomiko sakonak sofritu dituen Euskadiri soluzioak eman behar dizkiogunez, II. errepublikaren urteetan sortutako Estatutoak berpizteko edozein alternatiba eskastzat jotzen dugu. Eta, edozein kasutan, autonomia-estatuto hura botere estatalarekin parez pare negoziatu behar da, eta ez honek unilateralki erabakia.

Hala ere, autonomia-errejimen hori **probisio-naltasuneko** izan behar litzatekeela uste dugu. Bai autonomia-errejimena bera eta baita botere estatalarekin erlazioak ere, hori **GUZTIA** euskal herriak baieztu, aldatu nahiz kendu egin beharko luke autodeterminatze-eskubidearen erabilte soberanoan.

3.- Posible al dira gaur foruak, ze kondiziotan?

Sistema Foralak, sozietate prekapitalista oinharritzat hartzen zuen eta zuzentzen zuen sistema bat izanik (gaur egun desegoki, defasatu eta antidemokratikoa dena) ez digu gauza handirik gehitzen. Gaurko errealitateari soluzioak prestatzeko ez gara igarora begira egongo, logikoki. Baina "reintegratze forala" lege zaharrak ber-jartzeko ulertzen ez bada, baizik eta Espainiar Estatuako beste herriekin sistema foralak zuen **erlazio-modu antzeko bat erreibindikatze**ko, **zentzu honetan** gaur egun uste dugu, sistema foralak zuen espiritua hartzeko biderik hoberena Pakto Federal bat egitea dela.

Euskal Herriari proposatuko diogu Pakto Federalak herri federatu bakoitzaren soberania errespetatu beharko du; herri bakoitzak bere bizitze berezia organizatzeko Kapazitate konstitugarria gordetzen; Federazioaren Botere Zentrala herri guztien akordioaren lorketa izan dadin, funtzio bereziekin; herri bakoitzak bere autodeterminatze-eskubide permanenta ber-erabiltzeko benetako posibilitateak eta garantia osoak gorde ditzan, inoiz beharrezkotzat ikusiko balu.



# EUSKAL HERRIAN

GAUZAN

MILAN

Agur adiskide:

Nire eritzian, zuek egindako hiru galderak gorputz bakar bat hartzen du gaur Euskadik bizi duen egoeran, Euskal Herri osoak eskatzen duen askatasuna alternatiba politiko batean konkretatzea baita beharrezkoa.

Dena dela, hemen nire erantzunak:

1.— Euskal Herriak, kondairan zehar, foruen bitartez eratu du bere bizimodua. Era honetan, gizaldiz eta gizaldiz gure herriak ukan duen askatasuna errepresentatzen dute foruek. Baina konkretuki, foruak, kondairaren azken partean, kapitalismo premonopolista garaia dagokion giza-legeak bezala agertzen zaizkigu. Geroztik, herriaren askatasun burruka autonomi arautegia lortzean konkretatu da, zeren herri batek, bere legez eta tresnaz bere bizitza zuzentzeko duen beharra eta eskubidea era desberdinetan agertzen da historiako une bakoitzean.

2.— Gure alternatiba ezaguna dela uste dugu. Euskadiko interes nazionala, gaur egunean, ez da foruak reibindikatzeko baizik autonomia eta autogobernua lortzea. Era honetan, foruei buruz bai, —historikoki duen esanahigaitik— baina gaurko egoerari dagokio gure alternatiba.

1936-ko Autonomi Arautegia reibindikatzen dugu, Estatu mailako demokrazia —lortzen denean— Euskadirentzat lehen unetik askatasun nazionala, autogobernua izatea nahi dugu. Horretarako bai, batasuna behar dugu, baina baita ere alternatiba konkretu bat, arautegi konkretu bat. Eta, zein Euskadik orain 40 urte erabili zuena baino egokiago? Nola ez, berritu eta gaurko egoeraren konforme ipini behar da, baina garai hartan lortu zuen Euskadik azken denborako askatasun maila handiena. Beste aldetik, eta ez da formalkeri bat, orduko Arautegiak autogobernua dauka berekin lotuta. Aurrerantz, beste etapa batean, jakina da autodeterminazioaz daukagun postura.

3.— Esan dugun legez, gaur egun foruak Autonomi Arautegian konkretatzen ditugu. Posible al da? Erantzuna, baietza izan behar, bestela ez genuke alternatibatzat hartuko azaldu duguna. Dena dela, posible izateko batasuna lortu behar da Euskadi mailan, indar demokratiko guztien artean. Posible izateko, Estatu mailan gaurko erregimena apurtu behar da, demokrazia lortu. Euskaldunok, bakarrean, ez gara ezertara iritsiko. Estatu osoko masa mugimendua eta batasuna behar da.

Alderdi iraultzaile bat gara. Gure herriaren historia kontuan harturik, zaharra eta berria loturik, aurreraka jo nahi genuke. Giza estruktura alda-

tzean, askatasunean, demokrazian, datza gure helburua. Foruei buruz, ezin dugu proposa orain ehun urte deuseztu zen lege-estruktura bat. Foruak dituen oinharria bai, baina gaurko egoeraren funtzioan. Oinharri hori, euskal askatasuna halegia, gaur arautegian, bihar autodeterminazioan, sozialismoan. Gauza bakoitza, bere garaian.

Besterik ez dugu. Agur bero bat.

Ramon Ormazabal

## “HEGO-IPAR LOKARRIAK”

1.— Euskal foruek, zuen pentsakeran, zer adierazten edo errepresentatzen dute?

Espainol Estatu modernoan osatu aurreko denboretan euskaldunek zituzten askatasunak adierazten dituzte Euskal Herriaren foruek.

Gure eritziz, bi alderdi aipagarri dituzte foruek:

a) alde batetik, erregearen aurrean euskaldunek zuten nazio askatasunaren —herri askatasunaren zehatzago litzateke— agerbide dira euskal foruak. Folak. Erregearekin elkartu zenean, Euskal Herriak bere gain gorde zuen burujabetza adierazten dute. Eta egun dugun estatua, hots, ekonomikoki, politikoki eta administratiboki zentralizatua, garai hartan oraindik osatu gabe zegoela azpimarkatu nahi dugu.

b) Bestalde, kapitalismoaren aurreko haroan euskal gizarteak zuen antolakeran adiefazten dute foruek. Eta hemen, euskal erakundeak (Batzarrak), bere funtzionamendua eta bere inguruan dagoen guztia aztertu beharko genuke.

2.— Zer alternatiba daukazu foruei buruz?

Gure ustetan, Euskadiko, eta estatu osoko, ekonomi, sozial eta politik. baldintzak, eta gure herriak nazio askatasuna lortzeko duen nahiak ahalbidetzen duena da foruei buruz dugun alternatiba.

Alde batetik, Euskadiren burujabetasuna inolako mugarik ezarri gabe onhartu behar da.

Bestetik, gaurko baldintzei dagokien autogobernu maila lortu behar dugu gure herriarentzat. 36.ko Estatutuak ematen duena baino zabalagoa izan daiteke eta izan behar du autogobernu hori, hau da gure proposamena. Eratu behar den Euskadiko Gobernuak bere gain ukan behar du euskal lurraldean ekonomia, kulturgintza eta hezkuntza planifikatzea, justizia ezartzea eta herriko bakea gordetzea. Era berean, ezin daiteke inolaz ere Nafarroa Euskadiren zati denik zalantzan jarri eta, estatutu horretan, Ipar eta Hego Euskadi elkartzen dituzten nazio lokarriak agertu behar direla deritzagu.

3.— Gaur foruak posible al dira, eta zein kondiziotan?

Galdera hau aurrekoa baino lehen erantzun behar litzateke. Foruak berrezartzearen arazoa eta





nazio askatasuna birlotzearen arazoa bat dira. Nazio askatasunak kondairan zehar hartu duen gorputz-kera bat da euskal forua; eta hori da 36ko estatutua bera ere. Egun, errealitatez kanpo dago foruak hitzez hitz berrezartzea. Batetik, hori ezinezkoa delako gaurko ekonomi egitura kapitalistan; bestetik, gaur nazio askatasunak hartu behar duen helbidea eta foruena, sarritan norabide ezberdinekoak gertatzen direlako. Adibide bat: euskal mugetan aduanak ezartzea baino interesgarriagoa da egun, euskal industriak atzerriko kapitalari duen atxekitasuna eta menpekotasuna arinduko duen ekonomiaren planifikaketa egin dezatela euskal erakundeek. Historiaren ikuspegitik ikusi behar ditugu, beraz, foruak eta XIX. gizaldirarte izan zuten esannahia berri eta 1975.eko egoerara egokitu.

## "ASKATASUNAREN GORPUTZERA"

1.— Euskal foruek, zuen pentsakeran, zer adierazten edo errepresentatzen dute?

Gure eritzian, foruak, geure nortasun bereziaren agerpen bat izan ziren. Herri batek era asko dauzka bere nortasun hori agertzeko: bere hizkuntza, kondaira, kultura, legeak... Foruak hau izan ziren: gure nortasun honen seinale bat. Gurearen ondoan herri batzu bizi izan ziren, batez ere espainiarak. Ba, gu eta haien arteko indar bizi haien agerpen bat izan ziren foruak. Ez gara hasiko orain aztertzen eta kritikatzeko. Euskal Herriak era askotara defendatu du bere nortasun hori, eta medio ezberdinez. Horrela, erromatarrekin era batera portatu zen bezala, arabiarrekin edo frankoekin beste era batetara portatu zen. Gero, Nafarroako Erresuma sortu zen, errege katolikoak etorri arte iraungo zuena.

Orduan sortzen dira foruak gutxi gora behera, batez ere Nafarroan. Gipuzkoak, Arabak eta Bizkaiak historia ezberdina dute. Dena dela, alde batetik Espainiako herriekin ondo konpontzeko sortu ziren, eta beste aldetik, bere nortasun eta antolamenduak eta abar, gordetzeko batez ere.

2.— Zer alternatiba daukazue foruei buruz?

Euskal Herriarentzat, 1876.a, prozesu zahar baten bukaera eta berri baten hasiera izan zen. Indar produktiboek, puntu batetaraino desarroilatu zirenean pauso kualitatezko bat eman zuten. Baina, ez pentsa pauso kualitatezko hau guretzat positiboa izan zenik. Barnean, kontradizio bat baino gehiago baitzaramatzen. Zer gertatu zen, ba, 1876.ean? Bere dirugoseari jarraituz, burgesiak urte honetan apurto edo desegin egiten ditu Euskal Herriak ordu arte bere burua gordetzeko zituen moldeak. Horrela, ba, sortzen da Euskal Herriaren proletarioa. Baina, molde normaletatik aparte sortzen da: bere izakera kontu-

tan hartu gabe, bere pentsakera kontutan hartu gabe, bere hizkuntza, bere organizazioa...kontutan hartu gabe. Honela, burgesiak, euskal proletarioarekin zauri sakon bat sortuz, eta beste zenbait zaurien artean, herri berezi baten kontzientzia kendu nahi izatean. Eta horrela, euskal proletarioaren artean eszizio bat sortzen da, oraindik gaur ikusten duguna. Orduan, zein da gure postura horrelako egoera baten aurrean? Behinik behin, ez dugu uste 1876ko egoera hartara itzultzea ona izango litzatekenik. Hau pentsatzea txorakeria bat dela uste dugu. Gaur egun indar produktiboak nola ari diren ikusita, eta bestetik, gauzak zenbat aberastu eta konplikatu diren ikusiz, hori nahi izatea kondaira osoari atzera-kada bat ematea izango litzateke... Gu euskal langileriaren sindikatu bakar baten atzetik gabiltza. Hau izan zen gure hasierako asmoa, eta honek jarraitzen du gure azken muga bezala, nahiz eta batzuren batzuk gu ez horrela ikusi...Ikuspegi honetatik begiratu, gu ez ginake sekulan Madriletik botatzen dizkiguten ogia apurren aurka egongo, foru batzu onhartuko balizkiguteke edo estatutu edo nahi luketena izanik ere. Baina ez pentsa gu horrekin konformatuko ginatzen. Gure helburua, Euskal Herriaren Euskadiko langileriaren sindikatu bakarra, librea eta demokratikoa lortzea da. Baina, hau lortzeko, beste gauzakere lortu behar ditugu. Dena lotuta baitago. Batez ere Euskal Herriak bere burua askatzeko daraman dinamikarekin. Horregatik, foruak ematen dizkigutela...? Ondo. Estatutuak ematen dizkigutela? Hobeto. Baina gu ez gara hor geldituko, Euskal Herriko kontradizio guztiak konpondu arte.

3.— Gaur foruak posible al dira, eta zein kondizioetan?

Bai, zer edo zer konpon lezakete, baina ez asko. Behar bada, estatutu batzu direla medio gaurkotu balira..., behar bada. Baina, politikan, azpitik jokatzeko bezain ona eta beharrezkoa —uste dugu kasu honetan ere bai— izaten da gauzei beren izenez deitzea. Honengatik guk uste dugu geure herri osoa foruen alde jartzea herria engainiatzea litzatekeela, edo desengainiatzea. Bai baitakigu geure herriaren nork defendatzen dituen foruak eta nork ez. Baina, kontuz!, gu ez gara kontra jarriko. Ez eta pentsatu ere! Hau dakigu bakarrik: gu euskal langileriaren sindikatu bakar baten atzetik gabiltzala. Hau foruen medioz etorriko dela? Ez dugu uste. Baina, etorriko balitz, ongi etorria izango da.



# EUSKAL HERRIAN

## FORUAK GAURKOTZEKO ZENBAIT BALDINTZA

Mendeurren honetan eta gaurko politika egoeran egunero entzuten dugu foru arazoa. Forua aipatzen dute zenbait alderdik, berdin gure arteko plaza gizon eta gizontok, eta azkenik forua ohian bat biurtzen hasiko ote den nago, eta ohianetan gertatzen den bezala zuhaitz gehiegik zuhaztia ikusten ez dute uzten, eta txarrago zuhaztiaren irteera ere ez.

Baina arazo hau beste batzuek ere ikutuko dutenez gero, nere lanera lotuko naiz: foruak gaurkotzeko zenbait baldintza. Zenbait diot zeren ez dago baldintzak agortzerik, eta beste lankide batzuek ere izango dituzte zenbait ideia baldintzaketa honetan.

### Demokratikotasuna

Foruak euskal lege iturritzat jotzen dituanetik ezin dezakete demokrazia kontestutik atera, bestela egun Nafarroan eta nolabait Araban gertatzen dena ikus dezagun. Diputazioak Foralak deitu, baina beren partaideak antidemokratikoki aukeratu, alkateak atzamarrak izendatuak, eta alkate ez badira ere kontzejal-konpromisario "tercio" horietako sasi bozketatik atereak, eta gero beren artean, merinaldeka edo eskualdeka hautezkunde mediatizatua egin. Mediatizatua diot, zeren gobernadoreak eskua sartzen baitu askotan edo Mogimenduko inspektore eta buruak bortxatu. Araban oraindik txarrago, bederatzitik hiru sindikal eta korporatibista erakundeetatik ateratzen dira, eta hor daude aparatu horietako ordezkari bikainak, Diputazio Forala deitzen den horretan.

Beraz ezin daiteke benetako forurik izan, egoera politikoa demokratikorik ez dagoen garaietan. Beste puntu bat eta ez txantxetakoa aukeraketa, herri ordezkariena diot, zenbatgarren graduakoa den ikusi behar genuke, baina hau geroago ikutuko dugu zehazkiago, orain demokrazi baldintza bezala ere seinalatu nahi dugu.

### Legegintza agintea

lamentu edo Asanblada, izenak ez du garrantzia gehiegirik, behar dira. Izenak izatekotaz ere hizkuntza aldetik du garrantzia, eta hemen eta behin betirako ia noiz hasten garen euskaraz bakarrik izenak jartzen. Ene ustez "Batzar Nagusiak" ez da deitura egokia ez zuzena, zeren erdararik itzulitako zerbait dira eta oker, "Juntas Generales", "Juntas Particulares" en oposizioan zeuden, eta gero baziren "Juntas de Merindad", Bizkaian eta "Juntas de Cuadrilla" eta "Juntas de Hermandad" Araban, beraz, eta kon-

Gaurko Nafarroaren forutasun delakoaren ahu-leziaren nabarmenenetarikoa legegintza aginterik ez izatea da. Horretarako lehen bazituen Gorteak, bistakoa dena da Gorte haiek lehengoan jartzerik ez duela inork pentsatuko noblezia, apaizgoa eta herriren besoekin, baina gertatzen dena zera da, Nafarroako oligarkiak eta beste bere meza laguntzaileek ez dutela Parlamentu gisako ezer, nahi Diputazioak horretara ez baitu kontrolirik.

Beraz, Nafarroan eta bestetan legegintza agintea duten erakundeak: Gorte edo Junta Jeneral, Partuan izanik "Nagusiak" izatekotaz ere Euskal-Herri bateratukoak liratekela, "nagusitasun" hori nazio osoari bakarrik emanaz, izen hau proposatzera ausartzen naiz: Herrialde Batzar Orokorak, edo bakoitza aipatzen denean, "herrialde" hitza kendu eta Gipuzkoako Batzar Orokorra esan adibidez.

Joan den Maiatzean Ulonan (Oionen) Arabak ospatu dituen Batzar Orokor horiek, hori besterik ez dira izan ospakizun huts bat, parodia bat, eta hori salatu beharrezkoa da, zeremonial zahar kutsuko bat, diskurseoetan igaro zen eguna, ez zen izan ez deliberantea ez legegintza batekoa, demokrazia errepresentatibotasun handirik ere ez zuten hango ordezkariak gehienak.

Forurik ezin dugu onar beraz erakunde hau ez dagoenean, edo sasiforutzat sala.

### Diputazio Foralen ipuina

Nafar batzuk asarre jartzen dira beren Diputazioari, Foral atzetik jarri ezik, nahiz eta jakin edo jakin behar foruen ondakinak bakarrik dituztela. Arabakoari Foral izatea azken gerra ondorean jarritako etiketa huts bat da, zeren Arabak ez du forurik, ekonomia kontzertua baizik. Orain dirudienez Gipuzkoa eta Bizkaikoek ere titulu hori hartuko omen dute.

Has gaitezun gauzak bere lekuan jartzen, Diputazioak ez dira izan gauza liluragarri bat, egoera politiko bakoitzaren espilu bat baizik, Gertatu dena zera da 1839tik arrezkero, eta Herri Administralgo modernoaren garaian herrialde mailako ejekutibo gobernu bat eraman dutela, eta urte batzuetan euskal administralgo baten nolabaiteko ispiu, beste Estatuko probintziekin konparatuaz. Hau aitortu beharra da go.

Bestalde jakin behar genuke lehengo foru garaietan, ez zirela prezizki Diputazioek askok uste duten bezala, gobernu agintea. Bizkaian esate baterako "Gobierno Universal del Señorío" zen ejekutibo osoa, eta hortik lau diputatu jeneralak nahi baduzue permanenteak Korrejidorarekin batera, Diputatuak abotsa zuten Gernikako Batzarretan baina ez botorik. Gehiago oraindik Pedro Lemonauria historiagilearen iritzi Diputazioa oso gauza berria da Bizkaiko erakunde politikoetan eta bigarren mailakoa. Araban ordea Diputazioa lagun batekoa zen egitan, diputatu jeneral bat bakarrik zegoen, eta "teniente" edo ordezeko bat. "Junta Particular" delakoa





osoagoa zen, zazpi lagunekoa, eskualde edo "cuadrilla" bakoitzetik bat hartuaz. Nola diteke Gipuzkoa-ko Diputazio Forala nahi izatea, Korrejidora eta txandako hiriaren ordezkarien bakarrik osatu bai zen gehiengan? Nafarroakoa ere ez zen eratzten gaur bezala, eta gainera baziren beste erakunde batzuk bere parean.

Beraz, baldintza hau jarriko nuke besteak beste, herrialdeen agente eragilea bera foru oinarrietan, gaur gaurko eran, eta demokratikoki hautatua izatea. Izena Diputazioa, Foral titulu edo titulurik gabe? Hobe ez litzake izango euskarazko izen bat eramatea?

"Ley de Bases de Regimen Local" berrian esaten baldin bada diputatuak Udalbatzarkide guztiak hautatuko direla, hots, eskualde bateko alkate eta kontzejal guztien artean, ene ustez Batzar Orokorretako ordezkariak, gehienetan alkateak bakarrik, hautatzea foralismo hori estu estuan erabiltzea da. Bigarren mailako bozketan aukeratu ahal badira, zergatik hirugarrenekoa hau foruen izenean, gainera foruak hori ere ez bai zuten esaten?

#### Eskualdeak eta foruak.

Foruak planteatzerakoan, eskualdeetakoak ere bazilera pentsatu behar genuke, esate baterako Enkartzazioetakoak, bere Avellanedako batzar eta guzti, Somorrostro haraneko burdin mehatzen legeekin; Durangaldea. Gerediagako batzarrekin eta bere eskualde zerbitzuekin; Aiara; Baztan, etab.

Egun eskualde-foru iturri hau baldintza premiatu bat biurtzen da, kontuan izanik ze garrantzi duen eskualdeak lurralde antolakizun arazoan, hirigintza planetan, zerbitzuetan, "...aipatu beharrezko beste arlo bat eskualdeena da. Halakoetan hainbat eratako zerbitzuak herri bakat bakoitzerako muntatzeak ez du ez buru ez hanka", esaten zuen argi oraintsu "Zeruko Argia"n, Bergarako Elkor alkate jaunak. Bero, ba, hala baldin bada foru konzeptua praktikara eramane behar da, eskualde mailan ere.

Eta kontu honetan interesgarriago da Lizarrako Estatutua baino, Iruinekoa. 1932koa. Hara zer dion, 3. artikulua: "para las comarcas en que concurren peculiaridades económicas o jurídicas de importancia, las Asambleas particulares de Alava, Guipuzcoa, Navarra y Vizcaya previa petición de la mayoría de los Ayuntamientos interesados y oídas las Diputaciones respectivas, podrán disponer un régimen de administración directa o especial en cuanto a las materias afectadas por dichas peculiaridades, en armonía con los intereses generales, sin que se altere por esto la condición político-administrativa de dichas comarcas dentro de los territorios de que forman parte. En estos casos, y a propuesta de dicha mayoría de Ayuntamientos se crearán también las instituciones sociales y jurídicas que los problemas propios de las referencias comarcas aconsejen, y que podrán extenderse al resto del País".

Gaur ez da irtenbidea batzuetan jartzea eta beste batzuetan ez, baizik eta bere forua zuten eskualdeetatik, foru horren iturria hartuz, euskal eskualde guztietara zabal.

Eskualde guztiko Udalbatzar osoen, kontzejal eta alkateren Eskualde Batzarrak sortuaz, hau balitzake benetako eskualde asamblea", eta gero eragile edo ejekutibo bezala "Junta de Merindad" edo "Junta de Cuadrilla" berbiztu baina gaurko erara, Eskualdeko Batzorde Eragile bezala alegia.

#### Udalak eta hauzoak.

Foru garaietan nola eratzten ziren, eta egun ere nolabait gordetzen ba dute Nafarroa eta Araban "Concejo abierto" beraz "Asamblea vecinal" bat, zenbait herrixketan, beharrezko da hau planteatzea. Bizkaia elizate asko kofradien, (kofradiak 50 baserrikoak ere badira, beraz, asko herrixka baino handiagoak) federakunde bat besterik ez ziren, eta hori erreflejatzen zen, bere hauzo batzarretan, hau zerbitzuetan eta abar. Laister argitaratuko da ene lan bat horretaz, "III Simposium de Historia del Señorío de Vizcaya" mirakurria.

Hauzo bakoitzak aukeratzen zuen bere ordetaria, errejidore edo gaurko kontzejala eta gaur ere legeak biderik eman ez arren, Bizkaiko zenbait udalengan ahalegintzen dira, kofradia guztiak nola edo hala Udalbatzarrean errepresenturik egotea.

Nafarroa eta Arabako kontzeju, Bizkaiko kofradia eta Leintz eskuadeko elizateetatik, egungo hiriburuetako kale hauzoetara berdin pasatu behar genuke foru filosofi dinamiko bat badugu behintzat. Iruinean, Gazteizen, Bilbon edo Donostian zer da hobe Udalbatzara zerrenda osoekin hautatzea, hala hauzo batzarrak jarriaz, hauk bere ordezkariak hautatzea? Errotxapea, Txantrea, Iturrama,...Iruinean; Zaramaga, Gasteiz Zaharra, Ariznabarra,... Gasteizen; Santutxu, Urizar-torrea, Zurbaran, Errekaldeberri,..... Bilbon; Amara. Intxaurren, Antigu, ...Donostian, gaur eta hemen, foru filosofi eta foru iturri batetik, behetik gorako euskal demokrazia erreal baten erakunde bihur behar dute.

Foruen gaurkotzearen baldintza beharrezko bat ikusten dut oinarrizko eta herriko demokrazia foral bat dinamizatzea, beraz, eta erakunde pundua amaitzeko, gure erakunde foral guztien errekuperatze bat ere planteatuaz.

#### Lana, ekonomi plangintza kontrolatzea, herri jabegoak.

Foruak bazituen herri jabegoei, olei buruz eta abar bere erakunde bereziak, beste batzuk ez zituen, orduan ez zirelako planteatzen. Batzuen errekuperatzea, eta besteak jartzea da beste baldintza bat.

Lanaren arteko harremanak, langilego, produzio arazo eta hitz baten lanak eta ekonomiak sortzen dituenak, konpontzeko balio ex badu egungorako fo-



# EUSKAL HERRIAN

ruak, forutasun horrek edo forutasun hori defendatzen duenak, bere klase edo sektoreari ikutzen ez dion bitartekoko foru hori ez da ene forua. Foruzale zeharo desberdinak gara, forua. Foruzale zeharo desberdinak gara, forua oso aldrebes interpretatzen dugu. Gainera foruak demokrazi liberal burges baterako bakarrik balio dute edo horren estalgarri, ala sistema sozialistarako, ez?

Ekonomi plangintza arloa ere hartu beharra dago, lurralde antolakizuna ere bai noski eta hitz baten amaitzeko, lehen ez, eta gaur, Herri Administralgoak hartzen dituen esparru politiko geroago eta ugaria-goetan egitura eta gainegiturak sortzeko baldintza.

## Euskara eta foruak.

Hain zuzen ere forua nolabait gorde duten herrialde bietan, Nafarroan eta Araban galdu da gehien euskara. Horrekin ez dut esan nahi forua izan dela errudun, baina bai euskara obiratzaille horiek badira datozen foruak, nahiago dut forurik ez izatea, eta zuzen zuzenen foruen kontra jartzea.

Foru deseuskalduntzaileak baizik, euskara indartu eta ofizialduko duten foruak baldintza bezala jartzea ez dut uste euskaldun bat gaitzetsiko duenik. Irakaskintza mundua kristau dotrina eta erretorikan ia bakarrik zegoen foru garaietatik, Estatu baten eta edozein mailatako Herri Administralgo baten ardurarik nagusienetarikoa biurtu den garaietara igaro garen bitarte honetan forua egon den lekuan eta neurrian, antzu eta kaltegarri gertatu zaigu, eten ikaragarri bat egon da hor, eta gainera beste gauza bat eta herrialdeen arteko lotura ez euskal batasunik egon ez den ezkerro, eta euskara denona da, elkarrekin arazo honi gogortazun gutxirekin eman diogu. Eta honekin euskaratik, Euskal Herriaren batasunera pasatzen naiz.

## Foruak bateratzaile eta ez sakabanatzaile.

Elkarrekin izan genuen mahai inguru baten Patxi Zabaleta nafar adiskideak, foralismo tradizional batek duen arrizku ikaragarria salatu zuen, herrialdekeriak manipulatzeko. Egia galanta, eta ikaragarria leitzarrak ziona.

Berriz ere Nafarroan aspaldiko kanpa hotsa entzuten hasi dira, foruak estatutoen kontra jartzen. Zergatik hau? beste herrialdeekin batasunik ez egiteko noski, eta jendeak ahaztuxea badu ere, Oriol-Urkixo-tarrak izan ziren "alavesismo" eta "fuerismo" batekin Araba ere bestekandik aldendu nahi izan zutenak, gaur eta berriz dirudienez Fragarri kontuz! esan diotenak, "foruak bai, baina ez estatuarik", honela behin ere (?) izan duten batasunik izango bai dute beren artean euskal probintziak. Bapo!

Foruzaletasun sospetxagarri horregatik, ta forurik izan ez dugunean, alderdi aberzaleak karlismo eta "fuerismo romántico" garaiko ondorenetatik hartu-

tako perspetiba gainditu es duelako, Azaolak idatzitako "insolidaridad crónica entre las provincias vascas" hori egi bildurgarria da. Beste arazo batzuetan, hizkuntzan esate baterako, izugarriko batasun kontzientzia bat hartu du Euskal-Herriak, baina ez lurraldeen batasun politikoan hainbeste, esan nahi duten erakunde eta egitura bateratzaileetan, Elizak berak ere ez du zinetan lan sistematikorik egin. Hor gaude unibertsital distritorik gabe, artzapezpikutetik bateraturik gabe, lurralde hauzitegi bateraturik gabe, etab. etab.

Konfederakunde egitura bat onartu da gehienetan herrialdearteko elkarketan, eta hori faltsua dela esano nuke eta forala ere ez. Zergatik konfederala herrialdeartean, eta ez Bizkaiako edo Nafarroako merinaldeartean? Abandotarrentzat Bizkaia bera ere merinaldeen eta errepublikan konfederakundea zen.

Beraz eta baldintza hau premiatasuna derizkiot, foruen gaurkotzean, hauztegitik edo herrixkatik, udalera, hemendik eskualdera bostgarren punduan azaldu duan bezalaxe, behetik gorako demokrazi piramidal eta konbergatzaile bezalatsu, piramide hori herrialdeetan ez baita burutzen, Euskal-Herri batuan baizik, forua euskal herrialdeen bateratzaile izan behar du. Eta ez du balio oraintsuko mendeetan horrela izan bada edo ez bada esateak, Herriaren nahiak baizik, frantzesak ere Algeria baturik historian ez zela izan esaten zuten, eta ezin zitekela egin errepikatzen. Ia zer dioten gaur.

## Eta Ipar herrialdeak?

Beste norbaiten lana da Iparraldea eta foruetaz iharduntzea, bakarrik eman azaldu nahi dutana hau da. Beste zenbait baldintzen artean, Iparraldea ere kontuan izan behar dela foru gaurkotze kontu honetan, hura ere gure Herriaren zati bat baita, eta han ziren Bortuzandiko Merinaldeko foruak. Ziberoako Zilbieta eta Uztaritzeko Biltzarrak.

J. L. Lizundia.





# EUSKAL FORUAK ESPAINIAKO GORTEETAN

Oraintxe, uztailaren egun hautantxe, betetzen da guztiok gogoan dugun Foru-deuseztapenaren lehenengo Mendehurrena, 1876-1976.

1876ko uztail hartan sutu zen Espainiako parlamentuan euskal Foruekiko eztabaida, hain zuzen XIX. mendean jasan dugun eztabaidarik bortitzena. Hilaren 12tik 19raino luzatu zen sokatira dialektiko gura. Uztailaren 21an eman zen, azkenik, Lege berria: Euskal Herriak ez zuen hartaz gero inolatan Forurik izanen.

## ESPAINIAKO KONSTITUZIOAK

Hemeritzigarren mendean —Cánovas-ek berea sortu arte— Konstituzioak dira Espainiako politikan alderdi politikoen eta liberalismo osoaren burrualdeku zatatsuenak. Ideologia liberalaren (eta beronen taldeen) zerbitzutan behin eta berriz berriztatzen dira; batzuetan, adabakiz eta bestetan osorik.

1876rainokoa hamaika Konstituzio ezagutzen ditu Espainiak, Konstituzio berri eta berriak gogoan har bagenitza behintzat. Baionako Estatutuarekin hasi (1808) eta Cádiz-tik igaroz (1812), azkenkoraino etengabe egina eta desegina darama Liberalismoak: 1808, 1812, 1820, 1834, 1845, 1856, 1857, 1869, 1873, 1876.

Konstituziogintza bakoitzak berez esan nahi du Estatuaren birmoldaketa eta, maiz, bai eta Estatuaren azpiko ideologiarik aldakuntza eta trukaketa ere. Cádiz-ko Gorteen aurretik, 1809an Espainia osora inkesta bat zuzendu zen eta, erantzunen araberak, ba dakigu Espainiako Erresumari askok eta askok Konstituzio moldaketa berri bat eman nahi ziola. Kondaira une hartako buruhauste larri bat zen hura.

Inkesta horretan bertan agertzen zaigu eskualdeetako Konstituzio berezien (horixe dira hain zuzen Foruak) arazoa. Beraz, Monarkiari Konstituzioa ematean, zer egingo da euskal Foruekin? Eskualdeetako Deretxo Publikoari eutsi egingo ote zaio, ala dena berdintasun batetara ekarriko da? Ez dezagun ahantz, Errejimen Zaharra aldatzean, berdintasun liberalaren alde jokatu nahi dela.

Berdintasun gogo horrek bi oztopo aurkitzen ditu berehala: gizarteko Estamenduak, eta Estatu-ko Konstituzio berdintasunik eza. Estamenduak, gizabanakoaren eskubideak zapaltzen dituzte, premiazkoa den libertate-lehiaketari trabak ezarriaz. Elizari eta Nobleziari bereziki, bere ekonomi-, gizarte- eta legezko abantailak kendu egin behar

zaizkie, gizarte klasista bat sor dadin. Hori da Liberalismoaren tesia. Ebakuntza horren ondoren, eskualdeen aparteko Foruak geratzen dira. Zer egin horiekin?

1809ko inkestak jasotzen dituen eritzien arabera, eskualdeetako Foruek ez dute tokirik nazio baten barnean. Nazioaren batasunak, hala diote, Konstituzio bakarra eskatzen du; aparteko txoko berezirik jasaten ez duen batasuna da hori. Irakurtzekoak dira Badajoz-ko apez batek zerabiltzan arrazoinak: "La Nación española, aunque es un vasto reino (oraindik Amerika ez da galdua) compuesto de diversas provincias, puede y debe gobernarse por unas leyes generales y uniformes, porque en todas ellas se habla una misma lengua, se profesa una misma religión y tiene una sola cabeza suprema".

XIX. mendeko Monarkiaren barnean, forudun eskualde bakarra Euskal Herria da, Kataluniak mende bat lehenago galdu baitzuen bere konstituzio berezia: Euskal Herriari "provincias exentas" deitzen zitzaion, edozein mapa historikotan ikus daitezkeen. Beraz, Foruak ezeztatu beharra aipatzean, zuzen-zuzen Euskal Herriko Lege Zaharra tirokatu nahi zen Cádiz-tik. Espainiako lehenengo Konstituzioak, 1812koak hategia, ez zuen baztertu berdintasun modu honen gogo. Bai progresismoa (Liberalismoaren ezkerria), bai moderantismoa (eskuina), Lege horri leial izango zaizkio Foruekiko arazoan. Unitarismoaren tesia irteten da garaile.

1812ko Konstituzioa gerratekoa izan zen. 1834eko "Estatuto Real" a ere karlistadaren barnean jaiotzen da, baina Harmada baten eta aginte moldatu baten eskutik dator hau. Estatutu horren deira, eskaldunal botxaturik daude Madrilerako deputatu ordezkariak bidaltzera, hain zuzen Euskal Herriari Legeak handixe eman nahi zaizkiolako. Hauteskunderen legeak han egiten dira orain, eta elektzioetatik sortutako ordezkariak harako dira. Espainiako Gorte berriek eman nahi dizkiote orain Euskal Herriari Legeak. Gorte haiek izena dute bakarrik zaharra, gainerako izaera eta egitekoetan erabat dira berriak, burgesiaren zerbitzurako asmatuak eta Monarkia Zaharraren kontra sortuak.

Honela, karlistadaren aitzakiarekin nahiz aitzakiarik gabe, euskal Batzarreak eta Nafarroako Gorteak enbarazo bat dira, Foru osoa behaztopo diren bezalaxe. Herriaren burugaintasunaren eta soberaniaren izenean sortzen dira Cádiz-ko Gorteak, Erregeri ordura arteko zenbait eskubide kenduz. Baina hemengo instituzioen soberania eta iturri jatorra ukatu eta itoerazi egiten dute.

Geure herriaren soberaniatik genuen Forua, inongo herriren (burgesiaren?) asmoetara bortxatuko da. Konstituzio desnazionaldu bat ezarriko zaigu.

## EUSKAL ARAZOA MADRILEN

Beraz, 1839 tik aurrera, gure herritasunaren instituzio-bideak Madrileko Gorte-Gobernuetan erabakiko dira. Hori da Espainiako Liberalismoaren









## FORUAK, IPAR ALDEAN.

Ipar aldeko hiru euskal Probintziek, beren Foruak, frantses Iraultza gertatu zelarik, 1789.ean beraz, galdu zituzten. Osoki galdu. Ez zen inolako hautsi-mautsirik izan: ez "kontzierto ekonomikorik", ez "lege paktaturik", are gutiago "estatuto berezirik"; deusik ere ez. Probintziak berak, eta Probintziek berezko zituzten gobernu molde, lege, eta Erakunde guztiak, deuseztatuak izan ziren. Hartaz gerotik ez da gehiago izan, frantses Estatuko administrazio-legeen arauera, ez Lapurdirik, ez Nafarroarik, ez Zuberoarik, ez eta inolako Euskal Herririk. Nahiz, hala ere, administrazio-zatikatzeko berrian, haraitzineko Herri-, Haran-, edo Herrialdekatze zenbaitek zertxobait iraun, eta bai Erakunde bereziren batek edo besteak ere.

Ipar aldeko Probintzietako Foruek antz handia zuten mugaz beste parteko Probintzietakoekin. Nafarroa Beherearen kasuan ez da harritzeko, Nafarroako Erresuma osokoak baitziren (XVII. mendean, Erregek "Foru berriak" idatz erazi arte bederen). Baina besteetan ere, foru-sistema bertsua aurkitzen zen. Eiki, Probintzia bakoitzak bere Foru bereziak ba zituen: bere berezko lege, era molde eta Instituzioak. Lapurdin eta Zuberoan adibidez, oso administrazio-egitura desberdinak ziren; hala nola, ez noblezia, ez apezak onhartzen ez zituèn "Lapurdikoko Bilzarrea", eta Zuberoako "Ordako Gortea" ("Silbietak", eta nobleen "Grand Corps" delakoak osatua), Erakunde arras diferenteak ziren; eta jakina, ez bata eta ez bestea ez ziren Nafarroa Behereko "Estatu"en gisara eratuak. Bizkitartean, ororen buru, hiruetan ez ezik, baina zazpitan (hauzo Probintzietan ere, Biarnon adibidez), jite eta egite bereko Foruak zirela ageri da. Funtsean, denetan gauza bera ziren Foruak: Erregeren eta Probintziaren arteko hitzarmen bat. Erregek, Probintziako Herri, Herrialde, Hiri, Haran eta herriarren ohitura eta legeen errespetatzeko zina egiten zuen; Probintziak berriz, horren truk, Erregeren babesa onhartuz (eta ordainduz), Foruek berek finkatu mugen barnean, haren larderia eta nagusigoaren onesteko promes ematen zuen. Hori zen hastapeneko tratua, denborarekin, batzuetan gehiago, besteetan gutiago, borrokabide eta eztabaida-gai bilakatuko dena.

Gureganaino helduak diren Foruak, Foru idatzia dira; erran nahi baitu, desitxuratu eta ahulduak. Kontutan har, ipar aldean bereziki, Foruen idazketa, errege-erdiraketaren lehen urratsetarik izan zela: Erregek manaturik, lasterka, gaizki idatzia izan ziren Foruak. Anitz erran nahi du, alde horretatik, Foru guztien erdaraz (gaskoieraz ipar aldean) izkiriatuak izateak. Bestalde, oso berant gertatu zen haien idazketa: Lapurdin, 1514.ean; Zuberoan, 1520.ean; Nafarroa Beherean, 1611.ean ("Foru berriak"; Foru zaharren idazketa, XIII. mendean erdian bururatu zela pentsatzen da, Nafarroako Erresuma oraindik bat zelarik, noski.).

Ipar aldeko Probintzietako Foruak, hego aldeko Probintzietakoekin gonbaratzen direlarik laster ohartzen da beraz, desberdintasunak, Foruetan bertan ez dautzala. Desberdintasunok ordea, han eta hemen, bateko eta besteko Foruek ukan bilakaeran aurkitzen dira; historiazko goiti behekiek sorteraziak. XVI - XVII. mendeetan jokutzen da guztia. Frantziako Erresuma, biziki goizik hasiko da Estatu modernoaren itxuraren hartzen; Espainiakoa aldiz, hemen aipatzeke utzi behar dugun arrazoi askorengatik, gibel geldituko da. Erran gabe doa, Estatu moderno erranez, Estatu erdiratzailea ematen dela aditzera... Luzeegi litzateke ipar aldeko Foruen ahultze eta beherapenaren historiaren kondatzea. Ez da gizaldi edo errege-aldi baten lana izan; hiru mendetako jorratze jarraikiaren fruitua, ordea. 1789.ean gertatua ez da bakarrik iraulpen-urte hartako bat-bateko ekintzaren ondorioa izan, aitzineko hiru mende haietako lan luze sakonaren bururapena baizik.

Lapurdi eta Zuberoa, 1450.ean (Aiherrako Hitzarmena) beretu zituen Frantziako Erresumak. 1154.etik ordu arte, bi euskal Probintziak gerizatu zituen Ingelatarreko Erregeren kontrako gerla luze baten ondoan. Errege berrik bertako Foruak errespetatuko dituela zin egiten badu ere, bere meneko nahi ditu bi Probintziak. Urteak joan arau, haren boterea handitu egiten da; Foruen kaltetan. Batetan hori ken, bestetan hura, bertako herri-instituzioak indargabetzen ditu. Bere politikaren eta nagusigoaren onhar erazteko, ararteko egokiak hautatzen ditu; nobleak, bistan denaz, edo nobletu nahia den familia aberats zenbait. Urrunegi joaten denean, eta herria haserrez jazartzen zaionean, atzera egiten ba daki. Aldiz, herriarren artean zenbait elkar ez aditze edo gataska sortzen delarik, bera agertzen da hauzi garbitzaile eta bake egile. Erran beharrik ote, holako paradak, bere larderiaren erakusteko eta hobeki finkatzeko baliatzen dituela?

Nafarroa Beherean, gauzak bide beretik joan dira, nahiz, legeaz, arras berdinarik ez diren. 1512.ean hasten da Nafarroaren agonia luzea. Azkenean, 1530.ean, "Mendiz haraindiko" eskualdeak bakarrik gelditzen dira libre. 1589.ean, euskal lur libre haietako Errege den Nafarroako Henrike III. a, Frantziako Errege izateko hautatua da (Frantziako Henrike IV.a). Errege bera, baina bi Erresuma. Hala erran du Erregek berak. Bizkitartean, 1620.ean, Luis XIII.ak, Foruak bortxatuz, Nafarroa Beherea Frantziako Erresumari lotzen dionean, zer balio dute Nafarren gaitzespen eta auhenek? Foruen arauera holakorik egin ez daitekeela oihuztatzen dute, baina zer zaizkio Erregeri Nafarroako Foruak? Zer indar du, 40.000 bizilagun doi-doia duen "Probintzia" hark? Erregek ez zuena jada aski indar ukan, bederatzi urte lehenago Foru zaharren berriztapenaren inposatzeko?









## FORUAK, IPAR ALDEAN.

Ipar aldeko hiru euskal Probintziek, beren Foruak, frantses Iraultza gertatu zelarik, 1789.ean beraz, galdu zituzten. Osoki galdu. Ez zen inolako hautsi-mautsirik izan: ez "kontzierto ekonomikorik", ez "lege paktaturik", are gutiago "estatuto berezirik"; deusik ere ez. Probintziak berak, eta Probintziek berezko zituzten gobernu molde, lege, eta Erakunde guztiak, deuseztatuak izan ziren. Hartaz geroztik ez da gehiago izan, frantses Estatuko administrazio-legeen arauera, ez Lapurdirik, ez Nafarroarik, ez Zuberoarik, ez eta inolako Euskal Herririk. Nahiz, hala ere, administrazio-zatikatze berrian, haraitzineko Herri-, Haran-, edo Herrialdekatze zenbaitek zertxobait iraun, eta bai Erakunde bereziren batek edo bestekek ere.

Ipar aldeko Probintzietako Foruek antz handia zuten mugaz beste parteko Probintzietakoekin. Nafarroa Beherearen kasuan ez da harritzeko, Nafarroako Erresuma osokoak baitziren (XVII. mendean, Erregek "Foru berriak" idatz erazi arte bederen). Baina besteetan ere, foru-sistema bertsua aurkitzen zen. Eiki, Probintzia bakoitzak bere Foru bereziak ba zituen: bere berezko lege, era molde eta Instituzioak. Lapurdin eta Zuberoan adibidez, oso administrazio-egitura desberdinak ziren; hala nola, ez noblezia, ez apezak onhartzen ez zituèn "Lapurdiko Biltzarrea", eta Zuberoako "Ordako Gortea" ("Silbieta" k, eta nobleen "Grand Corps" delakoak osatua), Erakunde arras diferenteak ziren; eta jakina, ez bata eta ez bestea ez ziren Nafarroa Behereko "Estatu" en gisara eratuak. Bizkitartean, ooren buru, hiruetan ez ezik, baina zazpitan (hauzo Probintzietan ere, Biarnon adibidez), jite eta egite bereko Foruak zirela ageri da. Funtsean, denetan gauza bera ziren Foruak: Erregeren eta Probintziaren arteko hitzarmen bat. Erregek, Probintziako Herri, Herrialde, Hiri, Haran eta herritarren ohitura eta legeen errespetatzeko zina egiten zuen; Probintziak berriz, horren truk, Erregeren babesa onhartuz (eta ordainduz), Foruek berek finkatu mugen barnean, haren larderia eta nagusigoaren onesteko promes ematen zuen. Hori zen hastapeneko tratua, denborarekin, batzuetan gehiago, besteetan gutiago, borrokabide eta eztabaida-gai bilakatuko dena.

Gureganaino helduak diren Foruak, Foru idatziaz dira; erran nahi baitu, desitxuratu eta ahulduak. Kontutan har, ipar aldean bereziki, Foruen idazketa, errege-erdiraketaren lehen urratsetarik izan zela: Erregek manaturik, lasterka, gaizki idatziaz izan ziren Foruak. Anitz erran nahi du, alde horretatik, Foru guztien erdaraz (gaskoineraz ipar aldean) izkiriatuak izateak. Bestalde, oso berant gertatu zen haien idazketa: Lapurdin, 1514.ean; Zuberoan, 1520.ean; Nafarroa Beherean, 1611.ean ("Foru berriak"); Foru zaharren idazketa, XIII. mendearen erdian bururatu zela pentsatzen da, Nafarroako Erresuma oraindik bat zelarik, noski.).

Ipar aldeko Probintzietako Foruak, hego aldeko Probintzietakoekin gonbaratzen direlarik laster ohartzen da beraz, desberdintasunak, Foruetan bertan ez dautzala. Desberdintasunok ordea, han eta hemen, bateko eta besteko Foruek ukan bilakaeran aurkitzen dira; historiazko goiti beheziek sorteraziak. XVI - XVII. mendeetan jokutzen da guztia. Frantziako Erresuma, biziki goizik hasiko da Estatu modernoaren itxuraren hartzen; Espainiakoa aldiz, hemen aipatzeke utzi behar dugun arrazoï askorengatik, gibel geldituko da. Erran gabe doa, Estatu moderno erranez, Estatu erdiratzailea ematen dela aditzera... Luzeegi litzateke ipar aldeko Foruen ahultze eta beherapenaren historiaren kondatzea. Ez da gizaldi edo errege-aldi baten lana izan; hiru mendetako jorratze jarraikiaren fruitua, ordea. 1789.ean gertatua ez da bakarrik iraulpen-urte hartako bat-bateko ekintzaren ondorioa izan, aitzineko hiru mende haietako lan luze sakonaren bururapena baizik.

Lapurdi eta Zuberoa, 1450.ean (Aiherrako Hitzarmena) beretu zituen Frantziako Erresumak. 1154.etik ordu arte, bi euskal Probintziak gerizatu zituèn Ingelatarreko Erregeren kontrako gerla luze baten ondoan. Errege berrik bertako Foruak errespetatuko dituela zin egiten badu ere, bere meneko nahi ditu bi Probintziak. Urteak joan arau, haren boterea handitu egiten da; Foruen kaltetan. Batetan hori ken, bestetan hura, bertako herri-instituzioak indargabetzen ditu. Bere politikaren eta nagusigoaren onhar erazteko, ararteko egokiak hautatzen ditu; nobleak, bistan denaz, edo nobletu nahia den familia aberats zenbait. Urrunegi joaten denean, eta herria haserrez jazartzen zaionean, atzera egiten ba daki. Aldiz, herritarren artean zenbait elkar ez aditze edo gataska sortzen delarik, bera agertzen da hauzi garbitzaile eta bake egile. Erran beharrik ote, holako paradak, bere larderiaren erakusteko eta hobeki finkatzeko baliatzen dituela?

Nafarroa Beherean, gauzak bide beretik joanen dira, nahiz, legez, arras berdinak ez diren. 1512.ean hasten da Nafarroaren agonia luzea. Azkenean, 1530.ean, "Mendiz haraindiko" eskualdeak bakarrik gelditzen dira libre. 1589.ean, euskal lur libre haietako Errege den Nafarroako Henrike III. a, Frantziako Errege izateko hautatua da (Frantziako Henrike IV.a). Errege bera, baina bi Erresuma. Hala erran du Erregek berak. Bizkitartean, 1620.ean, Luis XIII.ak, Foruak bortxatuz, Nafarroa Beherea Frantziako Erresumari lotzen dionean, zer balio dute Nafarren gaitzespen eta auhenek? Foruen arauera holakorik egin ez daitekeela oihuztatzen dute, baina zer zaizkio Erregeri Nafarroako Foruak? Zer indar du, 40.000 bizilagun doi-doi duen "Probintzia" hark? Erregek ez zuena jada aski indar ukan, bederatzi urte lehenago Foru zaharren berriztapenaren inposatzeko?



# EUSKAL HERRIAN

XVIII. mendean, Foruak, gero eta Erregek ukatua goak... 1733.ean, bertako nobleziak sustaturik, Zuberoako herri erakunde nagusia —Silbieta (Heren Estatuaren biltzarre orokorra; izena bera, "zin-bide" hitz elkartetik omen dator)— deusezten du. Lapurdin, Erregeren zergariak, bost egin ahaletan aritzen dira Foruen, eta bereziki Lapurdiko Biltzarrearen "erreformatzeko". Nafarroa Beherean, dudarik batera gabe, Erregeren aitzinean Foruen zaintzeko, elkartasun handia agertzen da, baina, han ere, Errege da esku. Horrengatik Frantziako Luis XVI.ak, Erresumako Estatu jeneralak 1789.eko bildu gogo dituela jakiten delarik, esperantza handi bat sortzen da euskal Probintzietan. Lapurdin eta Zuberoan eskapen-kaierak idazten dira, Erregeri, mila gauzaren artean, Foruen hobeki errespetatzeko eskatuz. Nafarroa Behereak, berriz, bere independentziaren frogatzeko paradaz baliatu nahi du: ez du Frantziako Estatu jeneraletara inoren igortzeko beharrik ikusten, Frantzia, Frantzia baita, eta Nafarroa, beste Estatu bat.. Zer ametsak! Zenbait hilabetez gauzak noraino joanen diren balekitez!

Guti ezaguna da, denbora haietan, Nafarroa Behereak, eta bereziki haren ordezkaria zen Polvel-ek, zer gataska eraman zuten Foruen ez galtzeko.

Gisa guztiz, alferrikako ihardukitzea izan zen, Nafarroak ere azkenean amor ematera behartuak izan baitziren. 1789.eko abuztuaren 4ean Probintziek beren Foruak galdu eta, azken esperantza bat gelditzen zen, Lapurtarrak, eta partikulazki Garat anaiak bi deputatuak, gauzatzen berrmatuko zirenak. Itxaropen hori: hiru euskal Probintzien departamendu bakar batetan biltzea. Berriz ere, ametsa: 1790.eko urtarrilaren 12an, "Assémlée Constituante" delakoak "Basses Pyrénées" izeneko departamenduan sorpena onhartzen zuen. Garat gaztearen orduko hitzak gogora ditzagun: "Il me reste un devoir à accomplir; il m'est prescrit par mes commettants, par ma raison, par ma conscience,... nulle chose au monde ne pourrait me le faire oublier! ... Par une délibération unanime ma Province proteste...!"

Lapurdiko Biltzarrea, Zuberoako Silbieta, Nafarroako Estatuak... izen horiek ba ote dute erran nahirik ipar aldeko gaurko euskaldunentzat? Hemengo Foruak berriz pitz litezkea, behar bezain gaurkotuz ere? Frantses Estatuaren eta Ipar Euskal Herriaren arteko harremanak, bi mende honetan ahantziak ditugun Foruen gisako zerbaiten arauera molda litezkea berriro? Ez dirudi. Gauzak urrunegi joan dira horretarako. Ipar aldeko Foruak iraganarenak dirateke betiko.

## GALERIA ARTETA

IPARRAGUIRRE, 15 - TEL. 421 78 55 - 423 93 69 - BILBAO - 9

### EUSKAL PINTATZAILE HILEN

### LAN HAUTATUAK

«...Eta bere egoitzaren barru-bizitza maiteago izatera beartzen ebelako, egun goibel eta euri lanparrak maite zituan. Egun bero ta argitsuak, ostera, arroputz eta kaskarin iruditzen jakozan...»

*Miguel de Unamuno*

Miguel de Unamuno  
«Paz en la guerra»  
Bilbao. 1897

«...Y porque le hacían querer más el íntimo recogimiento de su tienda, amaba los días grises y de lluvia lenta. Los de calor y luz parecíanle ostentosos e indiscretos...»



Arteta Galeriak euskarari, hizkuntzetan Himalaya denari, goraintzi, bake eta osagarri.





# BI MENDE

Bi mende honetan, euskal foruek, mugaz honaindian, aipabide guti eman badute ere, ez daiteke horrengatik erran, foruek finkatzen zuten euskal autonomia edo auto-gobernu baten asmoa, orduan aldebat iraungi zenik. Izan dira, handik hona, foruen eta ipar euskal herriaren beraren ezteusetaratze horren kontra altxatu diren gizon batzu XIX. mendean, Garat gaztea lehenik Napoleon Lehenari, euskal zazpi Probintzien biltzeko proposamendua egin ziona (orduko modari jarraituz, "La Nouvelle Phénicie" deitu gogo zuen); Baionako Gomertzio Ganbara gero, horrek, 1836.ean, "Département de l'Adour" izena emanik, euskal departamendu baten sortzeko xedea erakutsi baitzuen (abertzale kutsurik batere gabe, ordea); Xaho zuberotarrari ere, ez zitzaizkiona gogo-ametsak "Basconia" batetara buruz hegaldatu?

Egia erran, entseiu horik oro ez ziren biziki urrun Joan XX. mendean, ipar aldean ere, abertzale-tasunaren pizteak sortezaziko zituen esperantza berriak. 1933.ean, Baionan, euskaraz eta frantsesez, "Euskal Herriaren alde" izeneko liburuxka argitara eman; "JEL" izenpetua, goitizen horrek, fruitua zer arbolak ekarri zuen garbi erakuzten baitu... Liburuxka horretan, "euskalherrizaleen chedeak" ezaguterazten ziren, "berechundeak" ezinezko emanez ("jazar baginte, ulia bezala leher ginitzazkete"), "Parisekilako lokharrien lachatzea" proposaturik. Orduan nagusi zen alde honetako eskuindar ideologia klerikala eta Aranaren irakaspenak elkarri loturik, hori izan zen, ipar aldean, euskal autonomia programatu zuen lehenbiziko entseiu politikoa. Hona foruez zer zioen: "lege horien (foruen) funtza edo mamia nahi ginuke zimendutzat hartu eta geroztikako lege zuzenak lehengoeri eratchekirik, ethorkizun hobe bati buruz abiatu". Zenbait urte geroago, xede horien obratzeko sortu "Aintzina" taldea. Frente popularrak agertu ondoan, eta Pétain Frantses Estatuko Buruzagi jartzearekin, gorputz-arimez galduko zen.

1945.ean gerla ondoan, Jean Etcheverry - Aintchart, orduko euskal deputatuak, Euskal Herriari

buruzko lege gai bat aurkeztu zion. Frantziako IV. Errepublikako konstituzioa moldatu beharrez bildu zen "Assemblée Constituante" delakoari. Lege gairen mamia, haren izenak berak erakusten zuen: "Statut d'autonomie du Pays Basque dans la République Française". Gorago aipatu gerla aitzineko egitarauan bezalatsu, euskal departamendu autonomo baten sorketa eskatzen zuen lege gai honek, foruak, eskubide pribatuari zegokiola aipatzen zituen batez ere: "il est créé une Cour Forale Basque dont la Sièg sera á Bayonne qui procèdera à la réforme du code civil en tenant compte des Fors de Labourd, Soule et Basse Navarre..." (11. art.). Erran gabe doa, Parisen, deputatuek bazterrerara utzi zutela Marc Legassek idatzia zuen lege gai hori.

Geroztikako entseiuak, Enbatarenek eta EHAS-enak gaur, ez dituzte kontutan hartu foruak. Halabaina, ehun eta lauetan hogeitau urte honetan, urak bide luzeegi egin du horretarako. Frantses Estatuan, Burjes Iraultza berdin, batetara, eta erdiratzailea, goizik eta osorik bururatu zen. Espainiako burjeseria, berriz, ez da gauza izan horretarako. Hortik datorriguke, alde batez bederan, foruei buruzko mugaz bi parteetako etsera eta jokamoldeen desberdintasuna. Ba da, bestalde, Nafarroa Garaian, Araban Bizkaian, Gipuzkoan, gaur egun ere oraindik, euskal kontzientzia historiko bat foru zaharretan finkatzen dena, haietan erroztatzen dena. Ipar aldean, berriz, deusik ere gisa horretako Abertzaletasuna ez da foruzaletasunetik sortu mugaz honaindian; hots, ez da karlismorik izan bien artean loturaren egiteko. "Foru" hitza bera ez da ezaguna, are gutiago erabilia. Euskal nazioaren kontzeptua, ipar aldeko euskaldunentzat, ez da hainbat historian finkatzen, gutiago oraindik foru-historian. Beharbada, historia hori irakatsi izan ez zaielako, eta hartaz gabetuak izan direlako. Beharbada, historia hori irakatsi izan ez zaielako, eta hartaz gabetuak izan direlako. Beharbada ere, eraiki gogo dugun geroa, maiz, honen etsigarri iruditzen zaigun iragan hil hartarik sortuko ez dela sentitzen dugulako.

Beñat Bidegorri.



# EUSKAL HERRIAN

## FORU BURRUKA, GAUR

Gaur ba al dugu Forurik? Gelditzen ote da ezer lehengo Lege zaharretik? Zerbait, Oso gutti.

Gure Foruen hondakinak azaldu baino lehen hau da kontuan izan beharrekoa: Legeak, Zuzengoak, bi sail ditu: Publikoa ta Pribatua.

Publikoak gizakiaren Estatu ta Administrazio-arekiko harremanak gobernatzan ditu. Baita Administrazioaren beraren barru harremanak ere. Pribatuak, aldiz, gizakien arteko harrmanak.

### 1.- Foru publik Legea

a) Ez dirau Bizkaian eta Gipuzkoan. Bi herrialdeotan genituen publik eskubideen kondarrak 1937-1937-ko Ekainaren 23-an kendu zizkiguten "Decreto-Ley" baten bidez. Decreto-Ley honen hitzaurrean Bizkaia eta Gipuzkoa traidoretzat hartu ta zigortzen ziren.

1968-ko, Ekainaren 6-an, beste "Decreto-Ley" baten aginduz kendu ziguten traidoretasun hori, lehengo Decreto-Ley-aren hitzaurre ezeztatuaz, baina zigorra ez. Hau da, zigorraren arrazoia kendu baina zigorrari iraun-erazi. Ulertzen ahal da?

Gauzak horrela, 1975-eko Hazilaren 7-ko "Decreto"-aren bidez Komisio bat izendatzen da Bizkaia ta Gipuzkoarentzat Administrazio Errejimen Berezi bat gertatzeko.

Komisio honen zenbait projektu ezagutzen ditugu eta ba dirudi, hitz hutsez kanpo, Bizkaia eta Gipuzkoak ez dutela zertan itxaropen izan.

Komisio hori Gobernuak lonbratua da herriaren ordezkari gabe. Gauden gertu eta zain.

b) Araban Ekonomi Kontzertua dugu Foru publik Legearen arrasto gisa. Kontzertu hau dela-ta, Arabak urtero kopuru bat Estatuari ordaindu beharra du, baina Ahaldundiaren gain doa Arabako zergen kobratzea.

Ekonomi azken Kontzertua 1952-ko Otsailaren 29-ko "Decreto"-ak regulatzen du eta Decreto hone-tan jartzen zen kopurua 1972-ko Abenduaren 23-ko "Orden"-ak jaso eta gaurkotzen du.

Datorren urtean egin beharko du Arabak Kontzertu berria.

d) Nafarroak Estatuarekin dituen harremanak 1841-eko Agorrilaren 16-ko Hitzarmen Legeak ("Ley Paccionada") zuzentzen ditu. Lege honetatik dator, hain zuzen, Nafarroak Estatuarekin duen Ekonomi Hitzarmena ("Convenio Economico"). Araban Kontzertuaren antzeko da.

Ekonomi azken Hitzarmena 1969-ko Uztailaren 24-ko "Decreto-Ley"-ak jarri zuen.

### 2.- Foru pribat Legea

Gipuzkoan ez dirau. Beste hiru herrialdeetan bai.

a) Bizkaian eta Araban gure pribat eskubide bereziak 1959-ko Uztailaren 30-eko Legeak aipatzen

ditu. Gehien bat, Bizkaiko "tierra lllana"-n aplikatzen da, "Villa"-tan ez. Araban, berriz, Laudio, Aramaio, Aiala, Amurrio, Lezama, Okondo, ta Arzenaga-ko Mendieta, Retes de Tudela, Santa Coloma eta Sojuguti hauzoetan, soilik.

Ez dira asko gure eskubide bereziok (tronkalitate, ezkontz-hondasun, herentzi, t.a.), baina zerbait.

b) Nafarroako pribat Zuzengoa 1973-ko Martxoaren 1-eko Legeak aprobatzen du.

Badirudi Espainian zehar Foru pribat legearen aurkako joera indartzen ari dela. Eta publik Legearen alde, ostera, ezer gutti egiten da. Beraz.

### Burruka beharra

Esan dugu 1975-eko Hazilaren 7-ko "Decreto"-aren bidez Gobernuak izendatu Komisio bat ari dela Madrilen Bizkaia ta Gipuzkoarentzat Errejimen Berezi bat gertatzen.

Komisio honengan ezin genezake itxaropen gehiegi jar. Komisiokoek herriordezkarri ez baina zentralismoaren zerbitzari kartsu bai dira. Ardura gehiago izango dute zentralismoa sustraitzen foru-eskubideak lortu eta berriztatzen baino.

Honez gain, ezagun da Gipuzkoa eta Bizkaiko Udaletxeek, Bergarakoaren eraginez, darameten ekintza. Euskal Udaletxeen benetako ordezkariak egin beharko lukeen Autonomi projektua eskatzen zaio Erregeari. Autonomi projektu honek, Foru-erakunde berrizatuak bilduaz, Lizarran onhartuaren antzeko beharko luke. Honela Euskal Herriak, Nafarroa barru, Lege Zahar berriztatu askatasuna izango luke.

Ez dakit konturatzen garen Udaletxeen jokabide honen garrantziaz.

Ez dira "terrorista" eta "separatista"-k Foru askatasun eske ari direnak. Gobernuak berak, batik-batik, izendatu Udaletxeek, Agintaritzaren konfiantzazkoek, hategia, dira eskabidean ari direnak.

Hau batetik. Bestetik, Udal-batza da, hain zuzen, herriarekin lehen harremanetan dagoen aginte-erakunde. Herria da, beraz, Foru eskatzen ari dena. "Discurso" eta hitzaldi ofizialeetan hainbat bider aipatutako herria.

Hala ere, Gipuzkoako ta Bizkaiko Gobernadore Zibilek Udaletxeek Erregeari egin eskaria suspenditu ondoren, arazoa Iruineko Haurtegia dago, Udal-batzek aurrera jotzea erabaki baidute.

Ekintza eta jokabide hau Gipuzkoa ta Bizkaiko udaletxe guztietara ezezik, Araba eta Nafarroakoetara ere eraman beharra dago.

Ea beste Lizarrako Biltzar berri bat antolatzen den.

Joko honetan, politik taldeez gain, ba dira beste zenbait bazkun eskabide berean dihardutenak. Hara nola: Real Sociedad Vascongada de Amigos del Pais, Colegio de Arquitectos Vasco-Navarro, t. a.

Noiz zabaldu eta lortuko ekintza guzti hauk? Orain da garaia.



# BAZKALONDOKO LAGUNIK ONENA



on  
egin

Ondo bazkandu ondoren, ba dakigu zer... Ba dau-  
de, egon, paper sofistikatuagoak, kolorezkoak, usain  
onekoak, etab. Gure ustez horik guztiok koplakeriak dira.  
Egiaz behar dena hauxe da: paper on bat, tolestu beharrik  
ez duena, eskuan nekez apurtzekoa eta problemarik gabe  
garbitzen duena. Eta, gainera, iraunkor eta merkea.



## "EL ELEFANTE"

Betidanikoa, luzeena eta merkeena duzu.



## augustin xahokarlistadan

Joan den mendean, foruen aldeko burrukek ohi ez bezalako ikusle bat ukan zuten: Augustin Xaho zuberotarra.

Sozialista erromantiko eta errepublikar amorratua, Xahok, 1835.ean Baionatik Nafarroara bidaiata egin zuen, karlistada in situ aztertzeko gogoz. Ibilaldi haren ondorioz, liburu bat idatzi zuen: *Voyage en Navarre pendant l'insurrection des Basques (1830-1835)*. Liburu hau, Xabier Mendigurenek itzulita, egunotan eman du argitara TXERTOAK gaztelaniaz.

Harrigarria da, izan ere, Xahoren gisako errepublikazale ezkertiar batek karlismoa hain begi onez ikustea. Kontraesanik ez hor, ordea. Itxuraz dynasti burruka zena, funtsean besterik zen: Herri eskubideen —foruen— aldeko askatasun gerra bat.


Giristinoen gobernu, liberala itxuraz, egiazki despotikoa zen, eta erdirakoia. Hori, monarkhian sinesten zutenentzat argi ez bazegoen, ezin garbiago zekusan gure zuberotarrak, ezkertiarra izanki. Sasoi hartako euskaldunak, Don Carlosen fabore agertzean, beraz, beren buruen fabore jarriak ziren. Itsutasuna ez beste dateke, nik uste, karlista haiez, erregezale zirela eta, burla egitea, eta are handiagoa, gainera, burla horik urte batzueko geroago, estatu bat gordetzearren, madrildar errepublika baten alde jarriko zirengandik etortzea.

Azala eta funtsa bereizten ez dakitenek ez dute sekula ulertuko, gizonak, Arestik zioenez, ez duela eskuharki bere bizia ematen arrosa bategatik, hodei bategatik, kolore batzurengatik edo izen bategatik, horien atzean eskutatzen diren balio eta interesez batzurengatik baizik.

Xahorentzat, hortaz, ezin nabariagoa zen karlistadaren funtsa. Hura euskal askatasunen aldeko herri altxamendu bat besterik ez zen, garaiko giroagatik errege arteko istilu batekin nahasi arren.

Behin aipatzen du Xahok, soilki, Don Carlosen legitimismoa bere liburuan, eta ez dio beroni ematen, gainera, garrantzi haundirik; herriak onhartuko zuen neurrian izan zen hura errege, ez bestela.

Historian konstante bat izan da; azken mendotan, euskaldunok, geure interes propioen defentsan aritzean, inoren banderapen agertzea. Behin Don Carlos, hurrengoan Paris, gero II errepublika



EDICION INTEGRAL

eta D.Javier, oraingoan alderdi estatalistak... Tamalgarria da. Ba dirudi euskaldunok beti inori sugea sasiarterik ateratzeko prest ibili behar dugula, guk min eta kalte hartu ondoren, geure jaunek sugarean buztana eman diezaguten. Patu tristea duguna, gure ez diren erakundeen morroi leial beti izatea.

Xahok Zumalakarregiri behiala egin zion galdara hor dago oraindik, eta propheziaren denborak jadanik bete direnez gero —Gernikarena lekuko— agian orain hasiko garateke geuraren alde zuzenki saiatzen, bitartekoak oro baztertuz.

Xabier Kintana





# FORUAK:

## MITO ETA ERREALTATE

Euskal Herriko jendeak foruak gutti ezagutzen ditu. Ahaztuak eduki ditu edo eduki dizkiote urte eta urteetan. Zer dira foruak?

Foruak alde batetik galdutako askatasun baten irudi, eta non edo non, aztarna dira. Beste alde batetik, foruak historian zehar lege batzu izan dira, edo herrien egitura batzu eta behar eta premia batzuei erantzun izan diete. Historian zehar orduan direlako foruak errealitate bat izan dute, nolabaiteko egitasun bat. Nolabait mugatzekotan errealitate horren neurria nik hona ze bereizitasunak agertuko nizekeen:

1.— Foruak lege bezela ez dira osotara askeak ziren herrien eredu izan. Edo eta nahi baduzue beste modu batera esateko hori bera, Euskal Herriko zatia foruak edo fueroak zituztenean, eta hau karlista gerrateak baino lehen ere, ez ziren lurralde aske batzu, ez ziren inolaz ere beren etorkizuna hautatzeko gaiak. Herri osotara askeak ez da inoiz esaten forudun direnik.

2.— Foruek beti Euskal Herria zatitan edo probintzietan zatiturik begiratzen dute. Gertatzen da orduan historia osoan foruek ez dutela lortu, ez eta oinharirik jarri, Euskal Herri osorako nolabaiteko erakunderik sor zedin.

3.— Foruak hemeretzigarren mendean galdu zuten erraberritzeko indarra. Lehen, karlista gerratearen ondorioz. Euskal herriko lau lurraldeetan lege egiteko eskubideak eta indarrak deuseztatu ziren; bai Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako "Juntak" nola Nafarroako "Kortek". Baina lege egile erakunde horik ez ziren inolaz ere herri arruntaren lekuko, baizik gehienetan estamentuen ordezkariez osatuak. Ez ziren inolaz ere demokratikoak, behintzat Nafarroan.

4.— Foruak hemeritzigarren mendetik atzeragoko legeak, egiturak, ohiturak eta bizitzeko moduak gogoerazten diskigute. Gaurkotzeko benetan berri berritik pentsatzen hasi beharko litzateke. Ba ahal dute foruek "mamia" edo "esentzia" holako berrikunderik egin ahal izan dadin?

5.— Azkenik, foruen errealitatean aldean ere ipini beharko genituzke gerrateen ondorean lau hego Euskal Herriko lurraldeetan gelditu ziren autonomia mugatuak: lege itundua Nafarroan eta Kontzertuak beste hiru probintzietan. Ez da ahaztu behar hain zuzen ere lege hauei foru esaten dietela. Ba dira esaten dutenak, adibidez Nafarroari dagokionez, lege itundu delakoak orain arte bezela irauin behar duela; aldatu gabe halebata eta hori dela hain zuzen ere fo-

ruen gaurko adibidea. Ez dugu ahaztu behar jendeak ere foruak bezela aspaldidanik Nafarroako eta Arabako egoerak ezagutzen dituela. Eta egoera hauetan hain zuzen ere zergak kobratzeko autonomia bat besterik ez dago...ez kulturagintzan, ez ekonomiako plangintzan, ez eta lan harremanetan batera askatasunik.

Zer dute orduan foruek "mito" bezela?.

Ez dezaket artikulu motz batean mito hitzaren esanahia osotara garbi; baina beti ere egia da, foruak zenbait zentzutan mito bilaka litezkeela eta gure herriari bere ondoreari buruz egiazko azterketak eta hautaketak eragotz edo galeraz liezazkioketela.

Esatea foruak gaurkoz errepresentatzen duela Euskal Herriko nahien erantzupidea mitoa da; hau da herriari begiak hertzerazi nahi izatea. Esatea foruak langileen arazoetarako soluziopidea direla mitoa da. Esatea foruak adierazten duela Euskal Herriaren soberania mitoa da, berez ere soberanoa delako. Esatea azkenik foruak ez daitezkeela alda edo estatutuen aurka doazela edo Euskadi beraren izarearen Kontra mitoa da. Gauza hauengatik guztionatik ere delako foruen erreinstaurazio hori mitoa bilaka daiteke ez baldin bada herriaren soberania osoan oinharritzen eta ez baldin badie gaurko langileriaren arazo nagusiei erantzuten.

Gorka Trintxerpe





# EUSKAL HERRIAN

# 50.000 LAGUN DONOSTIAN

50.000 LAGUN PAKETSU  
ESKUIN INDARKERIEN AURKA

Berrogei eta hamar mila lagun bildu ziren Donostian Uztailaren 3an Antiguoko elkarteak antolatutako ibilaldi baketsuan parte hartzeko. Dakizueenez, ibiladi hau eskuin aldeko indarkerien aurka antolatua izan zen.

Ibilaldi ondoren antolatzaileekin egon ginen. Pozik zeuden eta arrazoiak, ibilaldia bere gidaritzapean izan zutelako. Ehun eta berrogeitamar lagun ez antolatzaileek, jendetzaren laguntasunaz noski, ibilaldi "baketsua" baketsu bezala eutsi zuten. Ostean han zeuden Donostiako kaleetan, milaka mota guztietako poliziak, beren ohitura jarraituaz jeep, autobus, ur-botatzaile kamioi, armak, buru-babes, erre-dola eta beste tresna guztiz gertuak.

Ibilaldia zortzietan hasi zen Antiguoko "Benta Berri" plazaetik. Ibilaldi nagusia hasi baino lehen, Antiguora joateko, beste "ibilaldi" bat ikusi genuen Benta Berriraino. Ibilaldia bederatzietako amaituta izan behar zuen eta horregatik puntualitate handiz eman zioten hasiera. Pankartetan garbi ikusten zen Gizpuzkoa guztitik etorritako 50.000 lagunak eskuin aldeko indarkerien kontra babesa eskatzen zutela eta autoritateen alperetasuna salatu ere. "Fasismoaren indarkeriaren aurka" zenbait pankartetan ikusten zen eta beste batzutan ardurapenak (responsabilidades) eskatzen ziren.







Poliki-poliki ibiladiak, Kontxako ibiltoki luze-  
tik "Cervantes" plazarantz jo zuen, poliziaren arreta  
aurrean. Isiltasun handia izan zen eta ez genuen  
slogantik entzun. "Cervantes" plazara iristean han  
poliziak egindako "ormaren" aurka ibilaldiko jen-  
deak gainezka pilatzen joan ziren, "Londres" izene-  
ko hoteletik hasi eta "Perla" deritzaion dantza tokia  
pasa arte. Bederatziak ingurutan ibilaldia oraindik  
Antiguoko tuneletik irtetzen hari zen, antolatzaile  
eta poliziaren harritasunaz.

Une batetan abots batek, "4L" berebil bate-  
tan ipinitako boz-gorailuaz ibiladiaren sentzuaz hitz-  
egin zuen, danoren txalo artean. Norbaitek ere iku-  
rrin bat agertu zuen buru gainetik.

Bederatzietan, antolatzaileek jarritako lagu-

nen oharpen bidez, 50.000 pertsonak Donostiako  
kaleetatik joan ziren. Talde batzuk, ala ere amnistia-  
ren alde garrasi egin zuten eta korrikada batzu egin  
behar izan zuten.

Ibilaldi honek sortu dituen eraskinak oso  
baiezkorrak izan dira. Beste batzutan nortzuk izaten  
diren "zirikatzaileak" argi ikusi da oraingoan. Jen-  
deak ibilaldi hauen bidez beren eritziak agertzea  
nahi duela hutsik, argi dago. Zer jasoko da orain?  
Bukatuko al dira betiko eskuin aldeko indarkeriak?  
Amaituko al dira komisaldegi barrutan jasotzen di-  
ren indarkeriak? Lege barruan eman diren bide guz-  
tiak ibili ditu herriak. Bide baketsuak ibiliak izan  
dira. Helburuak lortuak izan ote al ziren?.

# 150.000 MANIFESTARI BILBON



Beren lantegian kalera botata izan direnen eta  
amnestiaren alde Bilbon izugarriko manifestazio  
"legal" bat ospatu zen Uztaileko 8 an. 150.000  
lagunetik gora bildu ziren Bilboko kale nagusiene-  
tan beren eskakizun eta beharrak jakinerazteko. Bi  
aramonean ondoren, Santurtzin egindako beste ma-

nifestazio batean, asmo berdinak azaltzeagatik,  
Normi Mentxaka andrea hila izan zen. Santurtziko  
hilketa zenbaitzuren eritziz Bilboko manifestazioak  
izan zuen arrakastaren aurkako egitada bat izan  
da.



# EUSKAL HERRIAN

## SANTURTZIN ERE ODOLA



Uztailaren 10ean Santurtzin "Normi" hil zuten, Mendizabal kaleko 19 garren atearen aurrean. Buruan tiro batez 46 urteko hiru seme-alaben ama bat "norbaitek" hil zuen. Herriak badaki nortzu izan diren, herria ez direnek baita ere, baina izan direnek ez dute oraindik zigorrik ezagutu.

Astelehenean, 12, bere arimagatik elizkizunak izan ziren Santurtzin. Hamabost mila lagun bildu ziren herriko plazan. Hiru egun barru Santurtzik ezagututako beldur eta barru-grina alde batetara utzia aztelehenearen arratsaldeko zazpi t'erditan hibaiaren ezkerreko langile eta bizilagunak batu egin ziren plazako kiosko inguruan. Betiko grisak ere han ziren, Udaletxe aurrean. Beste asko herri guztitik sakabaturik zeuden, gertakizunei erne. Zenbat izango ziren? Zaile da jakitea, baina Santurtzi zeharo hartuta zegoe-la lasai esan dezakegu.

Lore-koroak laster hasi ziren kioskora heltzen. Koroa bakoitza txaloz hartua zen. Pankarta batzu ere azaldu ziren: "El pueblo pide justicia"; "La zona industrial de Berango por la amnistia"... Hizlarien hitzak ere txalotuta izan ziren. Mikrofonorik ez egotean kiosko inguruetan zeudenek bakarrik entzuten zituzten han esandako hitzak, baina denok txalotu. Hogeiren bat koroa jarri ziren kioskoan eta, pankarta batean bi lore gorri loturik, "Normi"ren argazki haundi bat, txistua jotzen. Zortziak; elizkizuna hasteko ordua heldu zen eta jendeak ez zuen nahi elizara joan, plazan jarraitzea baizik. Kioskoan elizkizuna egiteko baimena lortzeko apez gazte bat alkatearengana joan zen bi aldiz eta, bi aldiz ere, alkateak ez zuen baimenik eman, nahiz eta arriskugarria izan hamabost mila lagun eliza barrura mugierazi. Eztabaida gogor batzuren ondoren baimena lortua izan zen eta, zortziak eta hogeian, hamabi apezek meza hasi zuten, han zeudenen txaloen artean. Beren atzean, nigar zotinez itota, "Normi"ren alarguna, beltzez jantzirik.

Elizkizunean, egindako homilia politik askatasunaz eta eskuin aldeko talde amorratuena aurka izan zen. Edozein aldeko indarkeriak gaitzetsi ondoren Santurtzin jende multzoen aurka erabilitako indarkeriak salhatu zituen eta behar hau agertu zituen: herriak onhartutako Konstituzio bat; agintariek herria errespetatu dezatela; oinarrizko eskubideak beharrezkoak direla, pistolak lasai eta libreki erabiltzen duten jendeak kontrolatzea; amnistia bat ere behar-beharrezkoa dela. Herriari ere hau eskatu zioten: beren eskubideak une egokienetan agertzea, seriotasun oneak eta alaitasun oneak garbiki bereziaz. Bake eta barkamenara heltzeko ere ohar bat egin zuen homilia. Apezek gero esan zigutenez, Karmen egunean egiten den prozesioa aurten ez da ospatuko.

Meza ondoren Kabiezez, San Juan Bautista, Las Viñas, Mamariga eta Buenavistako hauzo elkarteek egindako idatzi bat irakurri zen, euskaraz eta erdaraz. Santurtziko indarkeriak salhatuaz.

### SANTURTZIKO AZKEN BERRIAK

Mahai inguru batez, Santurtziko gazte talde batekin bere herrian jasotako gertakari buruz hitz egin dugu. Hiru egunetan zehar (Uztailaren 10, 11 eta 12an) Santurtzi osorik hartua izan dela esan digute (hau geure begiz ikusi dugu). Santurtzitar askok beren besoetan lokarri beltzak zeramatzen egun horretan dolu seinalez eta poliziek lokarri hauk kenerazi edo berberak tiraldi batez kentzen zituzten, lokarria zeramatena kolpez astindu baino lehen.. Kaleetatik lasai ibiltzerik ez zegoen, grisak beren autobusetatik jaitsi eta kolpeta hasten zirelako. Herriko gazte batzu ere komisaldegira eramanak izan ziren, gertakariaren ikusle ziren ala ez jakiteko eta "gehiegi" zekiten ala ez ikeritzeko. Santurtziko gazte hauek esan zigutenez, "Normi"ren familiak bi salhakuntza egin ditu: lehena, "Normi"ren gorputza beren baimenik gabe lurperatu





nahi izan zutelako poliziakoen aurka eta, bestea, "Sanidad" en aurka: nahiz eta familiak gorputza aste bat gehiago konserbatzeko injekzio bat jartzeko bai-mena eman, "Sanidad" ek ez zuen injekzio hau jarri.

### KOMISIO BAT ARGI BILA

Gertakizun eta erresponsabilitateak lehenbait-lehen argi eta garbi ager dezaten, Santurtziko hauzo elkarte, gazte talde eta kultur taldeek ikertzeko komisi-  
sio bat antolatu dute eta, abokatu batzuren laguntzaz, komisi-  
sio honek beren lanak hasi ditu. Beren lanak bu-  
katzean komisi-  
sio honek bere ikerketak justizi tribuna-  
leko eskuetan jarriko ditu.



BEZPERAN ERE SANTURTZI OSOA KALEAN ZEN

JUSTIZIA  
ERE  
BAI



HERRIAREN DEIA KALERIK KALE BILBON



## 24 orduak pezetaz

Euskaltzainburu, euskaltzain eta gainontzeko adiskideok!

Kontu zaharrekin gatozkizue. Joandaneke Martxoaren 27-an Donostia eta Loiolako Herri Irratiek, gogoan izango duzutela oraindik ere, espero dut, 24 ORDUAK EUSKARAZ eguna ospatzen zuten. Eta gogoan izango duzutela, baita, espero dut, nolaz eguna, nolabait, EUSKALTZAINDI honen inguruan eratua izan zen. Eta, baita, eguna amaitzeko Era-kunde honen beronen aldeko Jaialdi bat nola ospa genuen. Anoetako Belodromoan.

Ez nator, hola nahi ere, ordukoak gogoratze hutsera. Joanak ahazten ikastea beharrezkoa da. Eta horixe egitera gatozela, esango nuke nik. Bainan hortarako gauzak ezin dira erdi eginak utzi. Eta oraindik ere ba dugu eskuartean eginkizun bat: zor dizkizuegun diruak ematea. Hortaraxe gatoz. Jaialdiak garbi utzi zituen 353.806 pezetak zuenak dira, beraz, horri aparte balantzeak adierazten duenez.

Balantzeko xifrak, ordea, hotzak ez ezik, sarri, nahiko ulerkaitzak ere gertatzen dira zerbaintentzat. Argitu beharra egoten da holakoetan. 1.210.800 pezetatik gelditzen dena baizik ez geratzea ez da, beharbada, guztientzat hain ulergarria izango. Euskaltzaindiaren alde joka nahiaz egun hartan Jaialdira joan zireneri eta, batez ere, "O eserlekuko" sarrerak erosi zituztenci argitasun hoiek zor dizkiegula, uste dugu. Argipen hauk zuen aurrean ematen baditugu, berriz, hemen esandako hitzek Euskal Herri osoan ohiartzuna izango dutenaren esperantzan da batetik, (eta hala gerta dadinaren erregua altxatzen diogu bai zuen idazkariari, bai hemen aurkitzen diren komunikabideeri, alde zurrerikako gure esker ona dutelarik), eta, nolabait, zuen orde aritu garenez ekintza honetan, gure jokabideekin ados egongo zaretanaren itxaropenetan, bestetik.

Goazen, bada, argipen hauekin.

Lehenik, esan behar dugu, ez garela, inolaz ere, oker atera zaigun zerbaiten zuriketa-zuzenketan ari. Alde hontatik Balantzeak alde zurretik espero genituen gisako xifrak aldarrikatzen ditu. Ba genekien gastu gogorretan sartzen ginela eratu nahi genuen klaseko Jaialdia eratzearekin eta, horrela, ezingo geniola, inolaz ere, Euskaltzaindiari bere diru premia konpondu. Hori ba genekien. Eta ba genekilako ziren bestelakoak gure asmoak. Euskaltzaindiaren alde ohiu sendo bat altxa nahi genuen. Eta altxa nahi genuen Euskal Herrian beste hainbeste egiteko prest eta gogoz aurkitzen ziren guztiekin batera. Hau zen gure helburua, hau gure asmoa. Kosta hala kosta. Ez genuen, inoiz ere, sarrera garestirik jarri nahi izan. 20 duroko sarrerak, alde hontatik, farregarriak

ere ba dira, ikusten badugu, bidebatez, azken kasu bat aipatzekotan, Rolling Stonesen kantaldi batetarako sarrerak 900 pezeta ordaindu baditu gure gazteriak. Bistan da, beste erako asmoak zirela gureak. Belodromoko ateak zabalik jarri nahi izan genituen 20 duro ximple bere patrikan zeuzkan edonorrentzat. Eta lortu genuen. Esan bezala, komertzialitate aldetik oso planteamendu eskasa eginaz.

Alde hontatik, beraz, gaur ematera gatozkizuen diru apurrak —zuen beharretarako apurrak, noski— sobran atera ziran txanponak dirala, esan genezake. Eta beste hau ere esan genezake: sobrako txanponak zerari zor zaizkiola bakar bakarrik: Euskaltzaindiaren alde jokatzeko prest aurkitu genuen jende multzo ikaragarriari. Gutitasunean ere, zerbait handi adierazten duten txanpon hoiek.

Bestalde, antolatzaileok beste jokabide nagusi bat ere segi nahi izan genuen Jaialdia antolatzetarakoan: JAIALDI on bat antola. Bertara bilduko zen jendeari atsegin izango zitzaion zerbait. Eta hau, ba genekien, garesti aterako zitzaigula. Teknika aldetikako egokitasun eta fintasunak ez dira bi duro kostatzen! 12.000 pertsonetara kantarien abotsa garbi eta diztiratsu helaraztea, bakar bakarrik diruz iristen da. Eta hala helarazi genuen. Mural eta posterretan egindako gastuak ere jokabide eta jokalege berdinekin eginak izan ziren. Kale guztiak paperez bete nahi izan genituen. Orain artean, gerra ondoren, ia erabili ez diren tamainetako paperez jende guztiak jakin zezan eta, zalantzik gabe jakin ere, ez ginela "betiko" kontutan ari. Zerbait berri egin nahi genuela, alderantziz. Eta gure iritzi osoa da paper hoiekiko zor handi bat dugula lortu genuena lortu begenuen.

Alde hontatik Jose Luis Zumetarekiko zorra ez da diruz ordaintzekoa eta ez diogu ordaindu ere. Bere kolaborazio osoa izan dugu, izan du, hobe, Euskaltzaindiak. Esker on guztiak ditugu berarentzat.

Beste hainbeste esan behar dugu Kultur Elkarteari eta Jaialdian bertan laguntzaile izan genituen neska mutileri buruz. Afari bat eman genien sagardotegi batetan handik egun batzutara: 150tik gora bildu ginen. Ezin genieken ordaindu egin zuten lana. Nolabait engainatu behar-ta, sabelera jo genduen, sarri egin ohi denez. Engainu guztien gainetik, ordea, esker ona baizik ez dugu beraiekiko.

Eta beste hainbeste esan behar dugu kantarrietaz. Deneri ordaindu diegu. Zoritxarrez, gure artean ordaintzen den moduraxe. Batek baino gehiagok, Euskaltzaindiaren alde izanik, kobra gabe aritzeko prest zegoela adierazi ziguten. Ezetz esan genuen holakoeri. Eta ordaindu egin diegu, pentsatuz, ordaindu ezin ditezkenak, hala eta guztiz, neurriren bate-






tan, behintzat, ordaindu egin behar direla, jendeak lanean gohoz eta animoz jarraituko badu.

Beste zerbait da "Sociedad de Autores eta Proteccion de Menoresek" eraman duten mozkina. Ez dira hoiiek guk jarritako legeak, bainan bai guk kunplitu beharrezkoak. Eta kunplitzea besterik ez dugu egin.

Askenik berriz, ezker on berezi batzu agertu nahi dizkiogu Donostiako CAT elkarteari. Ez dakigu zenbat milaka pezeta eta zenbat lan ez digun aurreratu. Belodromoa ez genuen txintik ordaindu, Donostian kartelak jartzea kostatzen zen diru mordoa bere praktikatik atera da (esan zigutenez, hori izango zen beraiek Euskaltzaindiari egingo zioten oparia) jestiotan eta muntaketa lanetan esker ezinezko eskua luzatu digute... Rafael Agirre jaunarentzat bere laguntza zabala eta ugaria hainako esker ona izan nahi genuke.

Eta besterik ez. Baizik eta gaur eta hemen igarotako kontuetaz aritzea gerta bazaigu, denbora guti barru etortzeaz leudekeneraz aritzea gerta dakigula. Opakizun bat diegu Donostia eta Loiolako Herri Irratiek geuren burueri: orain artean aurkitu ditugun esku languntzaile ugariak aurrerantz ere aurki ahal izatea. Gaur eskertzen dieguneri berriro ere eskertze-ko lotsik ez dugu izango, aldeaz aurretik, ekintza batetan lankide izaten bagara. Eta batez ere, Euskaltzaindiaren babesari eta laguntza eskatzen dugu. Izango dugunaren itzaropen osotan, agur, gaurkoz!.



## JAIALDIA

Gastuen izenak	Zenbat
Txartelak egin eta banatzea.....	267.255
Belodromoko gastuak:	
-enkargatu, atezain eta eser- lekuetako zaintzaileeri or- daindua.....	31.600
-eszenategiko materiala eta prestaketa.....	6.025
-sonorizazioa.....	90.000
-argiak.....	9.800
-aulkiak.....	50.898
-taberna.....	12.000
Artistei ordainduak:	
-aritzeagatik.....	159.500
-afariak.....	39.600
Antolatzen egindako gastuak:	
-bideetan.....	5.420
-tramitazio, baimen eta gisa- koak.....	4.623
Laguntzaileeri emana:	
-afari bat sagardotegi batetan	35.294
Sociedad de Autores-ek kobratua.	98.237
Protección de Menores-ek-kobra- tua.....	<u>46.742</u>
Guztira	856.994

Aterako dirua	Zenbat.
10.000 sarrera x 20 duro.....	1.000.000
O Eserlekuak.....	210.800
Guztira	<u>1.210.800</u>

EUSKALTZAINDIARENTZAT 353.806



## SAN MARZIALETAKO «TIROAK»



San Marzialetako jaiak beti zaratatsu eta sasi-tiroaz beterik izaten dira. Aurten, hala ere, "alardekoek" beren harmaz egindako "tiroek" ba zuten beren helburua.

Jaiak normalki hasi ziren baina helikoptero baten iragateak, bi gazteren harrapaketak eta kapitain jeneralak egin zuen etorrera ikusgarriak irundarren izpirituak berotu zituen eta "Alarde"koek arratsaldean ez zuten desfilerik egin. "Arkolla"ren argazkian ikus dezakegun bezala, soldadu taldeak Udaletxe aurrean eseri ziren lehengoaz eta gero beren tiro guztiak hantxe bota zituzten. Irungo alkate eta jauntxoak ez ziren Udaletxearen balkoian ageri, irundarren haserrea eta tiroen "keak" ikus ondoren.

Ondorioak: irundar batzuk diru-zigorrak ordaindu behar izan zuten. Aurtengo San Marzialetako ikasgaia: sasi-tiroak synbolikoak izan daitezkeela, "jauntxo" batzurentzat tamalez.

S.K.

## E.S.B. BIZKAIAN AGERTU DA



Deustuan, ikurrinaren itzalpean, berrehun bat elkartu ziren E.S.B.-aren agerpena zelako azken 13an arratsaldeko zortziretan Salesianoen etxean.

Indar abertzale sozialistak elkartzeko eta plazaratzeko jaio dela E.S.B. azaldu zuten. Eta langileriaren interesak asumituz, espainolen harma berberak erabiltzearen plazaratu egiten dela eta ez bestegatik.

Burruka harmatua ukatzen du E.S.B.ak eta zenbait erakunderen marximo dogmatikoa arbutzen. E.S.B.-aren sozialismoaren mugak jartzera-koan, marxismo-leninismoan eta sozial demokrazian jartzen dituzte.

Oraingoz konberjentzia bezala agertzen da militantzia gehitzeko, baina epe motz baten barruan benetako alderdi bat izan duela aitortzen du. Ordu-rartean irekirik dago sozialista abertzale —eta ez sukurtsalista— erakunde guztiei.

Idatzitakoak, alderdi bat definitzen duela esan ondoren elkarhizketa luze bat zabaldu zen. Elkarhizketa honetako punturik polemikoena Ipar alde oraingoz eta une honetan alde batera uztearena izan zen.





# DONOSTIA ETA PASAI ANTXXO

IKASBIDE IKASTOLA ta Amara Berriko Jaialdiak

Amara Berri, beharbada Donostialdeko hau-  
zorik handiena da. 40.000 tik gora bizilagun, hauzo  
moderno mamut horietakoa, bost dorre daude kale  
multzoaren inguruan, eta espekulapenak eta etxegin-  
tza deskontrolatu ta interesatuegiak eraikia. Eta eza-  
gutzen ez garenez gero zaila da bertan hauzolana egi-  
tea, eta hauzo giroa sortzea.

Berria, albistea zera da. Ikasbide Ikastolak ger-  
tatu dituen euskal jaialdiak oso harrera ona izan di-  
tuela hauzoan, eta giroa biaz sortu, lehen aldiz, batez  
ere, TXABOL-SOTOA (marmitako, sardina, kaxue-  
la, sagardo, t.a.) bitarteko.

Beldur ginen Ikasbide ikastola ere, eta holako  
hauzo handi eta erdaldun baten euskal isla edo ugar-  
te bat bailitzan gertatzekoa. Baina ez, Ikasbidek ongi  
agertu du, ikastola barrutik atera (ba zen ordua) ta  
hauzoa mogitu ta euskalduntzeko gauza ere ba dela.  
Amara berriko hauzategian Euskal Kultur Aste hau  
historiara pasatuko da, eta abiadura hau kontutan  
harturik eratu beharko dira hauzorako urrengo jaial-  
di eta kultur antolaketak.

Gogoangarriak dira, baita ere, ikastolan anto-  
latu diren hitzaldi mamitsuak: lehenik, Ikastolaren  
Hezketa eta bere Mogimendua; Euskal Unibertsita-  
teari buruz Mahai ingurua, eta azkenik, Elebitza, bi  
hizlariekin. Ekainak 18 ko Mahai inguruan, garbi gel-  
ditu zen, ikastolak herri burruka batean ari direla  
lortzen, eta elebitza edo euskararen eskubide osoak  
irixtea ere burrukan iritxi beharko ditugula Euskal  
Unibertsitate bezalaxe. "Baina irakaskintza osoak  
eta Unibertsitateak herrikoiak behar dute izan, eus-  
kalduna eta herri xehearena, beraz. Eta ez, (Arta-  
mendiren hitzak) Europako Unibertsitateak bezala,  
burgesiak eta burgesiarentzat eginak", benetan herri-  
koia izateko, herri xeheak, euskaldun eta inmigran-  
te, batik bat, eusko langileriak, langile klaseak hartu  
behar du parterik handiena, herrian gehienak eta be-  
sorik garrantzitsuena osatzen dutelakoz.

Hala ere, Amara Berriko giro biazia Marineroen  
Enparantza inguruan zabaldu da, txabol-sotoakin,  
dantza talde, haur antzerki, marko lehiaketa, liburu  
azokak, Kultura folklore ta jolasketak eta tripa go-  
zok borobildurik.

Hauzo Elkarte ta ikastola

Bestalde, S. Joanetako kantaldiak eta suaren  
inguruko jaialdiak ere oso ongi atera ziren, hontan  
Hauzo Elkartek ta ikastola elkarrekin jardun ziren.  
Gezurra badirudi ere, pauso interesgarria izan da  
Amarako Hauzo Elkarte ta Ikasbide hauzategiaren  
onera elkartzea.

Hauzategi gehienetan nabari dira, noski,  
Hauzo Elkarte ta ikastoletan arteko diferentziak,  
hauzo elkartetako zenbaiten zorioneko espainiolis-  
moaren cruz, edo eta, ikastoleetako zenbaiten bur-  
geskeri reazonarioaren erruz. Izan ere, hauzo elkar-  
teak hauzoko beharkizunak planteatu eta bere esku-  
bideak defendatzeko sortu dira, lehenik, baita ere  
kulturazko beharkizunak, baina, ikastolak edo ikas-  
tola elkarrekin ia ez dute ezer antolatzen, hauzategira  
begira, kultur eta gizarte arazo oso bateri bagogoz-  
kio.

Dena dela, ikastola inguruak oraindik gizarte  
aldetik itxi xamarrak badira, ezin esan borrokalariak  
ez direnik. Bestalde, lan mardula ba dago oraindik  
Hauzo Elkartetako zenbaiti euskera ta euskal ara-  
zoa sakonetik konprenierazteko.

Aurrerantzean hainbeste konplejo ta oztopo  
gainditu beharrea aurkitzen gara. Ez gehiago ma-  
muak ikusiz, trikuak antzo kixkurtu. Lehenik, garbi  
jakin zer nahi dugun eta zeintzuk diren gure helbu-  
ruak. Eta orduan, denok jakinen dugu nortzuk diren  
euskaltzale huts edo burges direnak, nortzuk nahi  
duten euskal ezker sakon eta organizatu bat eta  
nortzuk euskaltzale oportunistak.

Alex



"GALEUSCA" KANTALDIA PASAIAN

Uztailaren 8an, Pasai Antxoko jaien artean,  
"Galeusca" izeneko kantaldi bat ospatu zen. Kanta  
saio honetan eta, gure ustez, Euskal Herrian lehen  
aldiz, Galizia, Euskal Herria eta Katalunia abeslariak  
elkarrekin kantatu zuten.

Bost mila lagunengana (gehiago ez ziren sar-  
tzen zezen-plaza ttikian) Miro Casabella galiziarra,  
Pantxo eta Peio, Gontzal Mendibilek, Xeberrik eta  
Subirachs katalanak beren kantei hasiera eman  
zioten. Beraien atzean Galiziako eta Kataluniako  
banderak.

Erdian, masta huts bat: ikurrinarena. Ikurrina,  
hala ere, zezen plazako inguruan dauden zuhaitz ba-  
tzutatik zintzilik agertu zen.  
Zorion beroak jai honen antolatzaileei.



## irruinea

Ekainaren 22an prentsa-aurreko mahai inguru batetara deituak izan ginen. Mahai-inguru hau Hauzo Elkarteetako ordezkariak antolatua zegoen. Bileran honetan beren Elkarteek duten arazoak eta kezkek azaldi zizkiguten. Nafarroan, egun, 16 Hauzo Elkarte ari da lanean, eta hauetatik, 4 bakarrik daude legez onharturik. Elkarte batzuk beren Araudiak orain dela 2 urte aurkeztu zituzten, eta ez dute oraindik erantzunik jaso. Legalizaturik ez egoteak mila oztopo jartzen dizkio Elkarte baten bizitzari. Alde batetik, azken berrogei urte hauk direla ta, jendeak ez du elkartzeko ohitura. Bestalde, Elkarte hauk legalizatu gabeak direla jakitean, jende askok alde batera uzten ditu. Honez gainera, eta hau legalizatuekin gertatzen da ere gauzak antolatzeko burocracia ikaragarri bat behar da bete, eta hala ere, askotan ez dute baimenik ematen.

Arazo hauk direla ta, agerkunde bat egitea pentsatu zuten. Horretarako, Gobierno Civilean baimena eskatu zuten hile honetako 15ean. Agerkundera 26an egiteko da. Gobernadoreak, hitzez, ezetza emana du, baina izkribuz ez. Antolatzaileek ez dute etsitzen, eta agerkundera eginen dela espero dute. (Bidaltzen dizuedan agiria ere biltzar honetan zabaldu zuten).

Nahiz eta hauzo batzuren egoera bestea baina hobea izan, arazo berdin batzuta dituztela aitortu zuten: Heziketa, Sanidad, Prezioak, Kultur Zentroak, Hirigintza, etab...

Guzti honi erantzun egoki bat emoteko, Elkartearen legalizazioa, eta gauzak antolatzeko askatasuna, beharrezkoa iruditzen zaie Elkartekoei.

Ordezkarieen kritiz, Hauzo Elkarten funtzioa oso zabala da. Arazo konkretu batzuekin hasten da (Ura, Arratoiak, Bizitzaren Garestitasuna...) eta heltzen da kultur gintza arte (CREAR NUEVAS FORMAS DE VIDA COLECTIVA, gure herriko kultura landu, etab.).

Hauzo Elkartearen egoera ikusiz, norik sinis dezake demokrazian sartzen hasiak garela? Alderdiek baina lehen, demokrazia, baseko erakundeek sortuko dute. Eta hemen gertatzen dena ikusiz, ez dezakegu sasi-demokrazia honetan sinis. Pentsa dezagun, alderdi politiko batzuren egoera, Hauzo Elkarteena baina hobea dela. Berriz ere, desarrazoia! Baina, ordezkari batek esan zuen bezala, hauzoetako problemak ez dira "cambio democratico" hutsarekin konponduko, problematika hau hori baina askoz zabalagoa delako, eta batez ere, e-  
struktura guztien (sozial, politiko, ekonomiko, mentalitatezko...) aldakuntza eskatzen duelako.

1.— San Juan dela ta, horrela deritzan hauzoan jaiak ospatu dituzte. Egitaraua oso ongi prestatua zegoen, adin guztietako jendea kontutan hartzen zuelarik. Gure ustez, interesgarriena gauetan gertatu diren ospakizunak izan dira. Gainera, hauk guztiz espontaneoak izan dira. Jai gau hauetan jende asko kaleratzen da eta txistuak eta dultzainak direla ta, eskal giro ikaragarri bat sortu da. Jendeak euskaraz abestu du, euskaraz oihukatu du. Bai, behar bada, entzun dugun euskara ez zen oso ona ez eta oso aberatsa, baina euskara zen, edo hobe, euskara izan nahi zuten.

2.— Gobernadoreak, txosten batez, Hauzo Elkarteek eskatu zioten agerkundera debekatu egin du. Horretarako arrazoi batzuta ematen ditu. Hoin artean, ondoko hauk: agerkunde hauetan, "personas y grupos subversivos" direlakoak zartzen direla dena nahastutzeko; baita ere, eskaria izenpetzen zuten artean ba zeudela batzuta Elkartearen ordezkari ez zirenak, eta abar.

Honen berri eman zigun San Juan hauzoko batek, 26an, jaialdi baten hasieran.

Jaialdi hau txistulariek hasi zuten, eta haien atzetik, Oskorrik katatu zuten. Ba zeuden hainbat pankarta, gazte batzuek jarritak, "Cultura popular", "Legalización y libertad para las Asociaciones de Vecinos" eskatzen zituztenak. Eta hauekin batera, ikurriña. Jaialdi hau Nafarroaren euskaltasunaren adierazgarri izan zela esan dezakegu. Jaialdiaren zehar, jendeak "Gora Euskadi Askatuta", "Gora Eusdi Sozialista", "Gora Euskadi Batua", "Amnistia", "Askatasuna" eta "Euskadi Batua inoiz ez zapaldua" oihukatuzuen. Baita ere, momentu batez, lehen esandako "Legalización Asociaciones de Vecinos". Jendeak ezagutzen zituen abestien leloak ere kantatu zuten, eta, batez ere, "Eusko Gudariak Gera". Kantaldiari amaiera emateko, txistulariek "Gernikako Arbola" jo zuten, eta han bildutakoek aho batez kantatu ere. Jaialdia amaitzera zihoanean, kaskodun artzainak harma ta guzti, acto de presencia egin zuten. Hauek ere espektakulo ikusgarri hura ez zuten galdu nahi. Eta, egitan, merezi zuten!

Nafarroako Herri langileak bere euskal izaera eta nortasuna behin eta berriz azaltzen du. Norik esan du Nafarroaren euskaltasuna ez dela gauza garbia? Honera etor dedila, eta ikusiko du. Gauzak ez ditugu kanpotik begiratu behar; gertatzen diren tokietara joan behar izanen genuke, Begiak dituenak, ikus beza.

3.— San Jorge hauzoan dauden eskola munizipal-tan hasi dira "kolak" ikusten. Inskripzio epea hasteko zela ta, gauaz, jendea eskoletara hurbiltzen hasi zen, bere semealabak apuntatzeko. 24ean, händik pasa ginenean, gaueko hamabietan, 40 bat pertsona zegoen. Esan digutenez, gero, gehiago ziren.



## HIZKUNTZALARITZA- ETA LITERATUR MINTEGIA (U.E.U.)

Aurreko zenbaki batetan "pedagogi-mintegikoe" egin zuten legez, eta aldez aurretik esanda zegoen bezala, Juan Antonio Letamendia eta biok pentsaketan ibili eta gero, bai eta handik eta hemendik zegada botatzen aritu ondoren ere, honako egitarau hau gertatu zaigu izen buruan jarri dudan gure mintegi honetarako:

-Agorrilaren 16an, astelehenarekin: "Hizkuntzaritza euskal hiztegia" Juan Antonio Letamendiak zuzendua.

-Agorrilaren 17an, asteartearekin: "Euskal fonologia eta transkribaketa fonetikoak". Honetan Michel Murgiartek eta Andolin Eguzkitzak edo hartuko dute parte. (Azken honena ez da seguru).

-Agorrilaren 18an, azteazkenarekin: "Euskal Textuazterketa". Mintegia Guadalupe Artolak zuzendua izanen da "Kamusarriren olerkigintzaren zenbait ezaugarri" deritzon lana aurkeztuko digula. José Antonio Muxikaren lan bat ere irakurriko edo egingen da: "Tartasen Ontsa-ren alderdi estilistiko batzu".

-Agorrilaren 19an, ostegunarekin: Ibon Sarasolak zuzendurikako mintegia "egungo euskal literaturaren problematikaz".

-Agorrilaren 20an, ostiralarekin: "Euskal atlas linguistikoaz". Alfonso Irigoienek eta Michel Murgiartek zuzendu parte hartu dute. Agian beste norbaitek.

-Agorrilaren 21an, larunbaterekin: "Euskal hizkeren azterketa, Lekeitioko eta Motrikuko hizkeraz" Mara Salinasek eta Joxe Agustin Harrietak zuzendua. "Euskal hizkeren azterketa, Lekeitioko eta Motrikuko hizkerak" Mara Salinasek eta Joxe Agustin Harrietak zuzendua.

-Agorrilaren 22an, igandearekin: guztiokin batera Zuberoarako txangoa.

-Agorrilaren 23an, astelehenarekin: "Euskalkien gramatika gonbaratiboa" (hizkuntza literaria). Txillardegik zuzenduko du mintegi hau.

-Agorrilaren 24an, asteartearekin: Xabier Kintanak "Kartveliar hizkuntzen egoeraz" mintegi bat zuzenduko digu. Mintegi hau sartzeko arrazoinik garrantzuenetarikoa bat Georgian orain guti dela sorturiko "euskal katedra" dugu.

-Agorrilaren 25an, asteazkenarekin: Lexikografiako mintegi bat. Margarita Ricak bere tesi tipia aurkeztuko digu, hots, "Frantziako Lehen Errepublikaren euskal hiztegi politikoa", Agian beste norbaitek ere parte har lezake, hala biz.

-Agorrilaren 26an, ostegunarekin: Koldo Izagierrek "Euskal poesiaz" mintegi bat zuzenduko du. Oraindik ez dugu nola pentsatu.

-Agorrilaren 27an, ostiralarekin: Aita Larzabalek "Antzerkigintzaren teknikaz" egingen du hitz eta gero

beste batzuen artean honako hauek parte hartuko duten mahain inguruko elkarrizketa bat moldatuko da euskal teatroaz: Piarres Larzabal, Joseba Irazu eta oraindik mintzatu ez garen arren behar bada Iñaki Beobide eta Patri Urkizu behinik behin; hala espero dugu bederen.

Ez dago esan beharrik nahi duen guztiak parte har lezakeenik, eta bere lanak aurkez lezakeenik. Etor eta lana presenta besterik ez. Hemen egin duguna ez du bideren marka besterik izan gura. Bestaldetik bete nahi ukan dugun helburua egun bakoitzean gai monografiko bat erabiltzearena izan da, h.d., gai horretaz egin denaren berri, egin behar denaren eta zelan egin behar denaren zerbaite jakiteko asmatu ditugu. Tira ba, denok parte hartzen badugu behintzat agian lortuko dugu.

Andolin Eguzkitza


# FUNDICIONES ARRIARAN, S.A.

**LABE  
ELEKTRIKOTAN  
EGINIKO ALTZAIRU BEREZIAK,  
TXATAL  
MOLDATUTAN**

**LAZKAO**  
(Gipuzkoa)  
tel. berria 881200



# NUKLEAR ZENTRALIK ez



Azken hilabete honetan sortu berria da "Euskal Kostalde ez nuklearraren defentsarako Batzordea". Hori dela eta, talde horrek prestaturiko zenbait txosten heldu dira nire eskuetara, eta, dudarik ez, txosten horiek aipamen berezia merezi dutela uste dut.

Interesgarria da, alde batetatik, batzorde hori nortzuk osotzen duten jakitzea: oraingoz, Famili

Elkarte batzutako nuklear arazorako batzordeek, Prezeski, Lekeitio, Mungia, Ea, Lemoiz eta Bilbo Haundiko Famili Elkarte gehienak talde horretan daude.

Lanean hastearekin batera, Batzorde horrek gutun bat idatzi dio Bizkaiko Diputazioari, nuklear zentralak eraikitzearen aurka dituen kexa zalantza eta kezka adieraziz eta Lemoizeko proiektu eta lanen geldierazpena eta Izparter-Eako projekturako behar den aurrebaimenaren ukoa eskatuz eta exigituz.

Eskari hori, Gipuzkoako Diputazioan egin den txostenean finkatzen da neurri handi batetan. Dakigunez, Gipuzkoako Diputazioak ukatu egin du, Debarako pentsaturik zegoen nuklear zentrala eraikitzekeo projektuaren aurrebaimena, Dames & Moore Iberia.S.A. delako enpresak eginiko estudio batean finkaturik.


Horretaz gainera, Iberduero,S.A. delakoak proiektu hauen inguruan egin dituen irregulartasun juridiko-administratiboak, teknikoak eta sozio-ekonomikoak salhatzen dira gutun horretan.

Jadanik, hainbeste talde eta pertsonak sinatu dute gutuna. Erantzun egokirik emanen ote die Diputazioak?

J.R.Etxebarria

## Argia ezinbestekoa den tokian,

## **SAFT**URA bat ezar. Berezko argia du.



Jantoki, iraganbide, ikasgela, botikin, zaingela, eskailera, logela eta antzekoetan, SAFT-URA emergentzi argigailuek beren segurtasuna eskaintzen dizute.

SAFT-URA-k pilagun argigailutan aukerarik ugariena dauka: aldizkakoak, semaforoak etab...

**SAFT** IBERICA, S. A. Artapadura, 11 - Tfnoa. 26 17 00 - Gasteiz



# medikuntz fakultatea eta selektibitatea



## IKASLEEN ERITZIA

"Ikasturte honen haseran, Medikuntz Fakultateko Anatomia, Biokimika eta Biologiako Departamentuetako Buruek, lehen kurtsuko hiru asignatura horietariko edozien suspendi dezana, bigarren kurtsura ezin pasa daitekeela erabaki zuten "Honela hasten da, Lejoako Medikuntz Fakultateko lehen kurtsuko ikasleek ateratako panfleto bat.

Panfleto berberean beherago idatzirik dagoenez, "neurri hori ikasturte honetan praktikan ipiniz gero, bigarren kurtsuan dauden ikasleetarik o/o 65 lehen kurtsuan egon beharko lukete".

*Ikasleak oso haserre dira, zeren nahiz eta urtean zehar selektibitate arazo hau konpontzeko hainbeste gestio egin duten, ez baitute agintariengandik erantzun egokirik jaso.*

Bitartean, Errektore jaunak Unibertsitateko Zuzendaritz Batzarrea antolatu du, eta bertan —ikasleek parte hartzen ez dutelarik— Batzarreak Departamentu Buruen erabakia onhartu du.

*Ikasleek diotenez, hori ez da inondik ere joku garbia, eta horregatik erabaki horren aurka burrukatzen ari dira.*

*Ni neu horrelako selektibitatearen aurka nago, justu ez dela eta horren bidez ezer ebazten ez delu uste baitut. Unibertsitatearen problemak hori baino garrantzizkoagoak dira; eta arazoa ezin konpon daiteke selektibitate bidez.*

*Unibertsitate demokratikoa behar dugu. Bertan, irakasleak, medioak, zentru egokiak, laborategiak... behar ditugu. Horik ipiniz, hobeki estudiatzeko eta lan egiteko posibilitatea egonen da Unibertsitatean. Bide eskasa da, ordea, dauden medio urriak gehitu gabe, selektibitate bidez gutti batzuk baino ezin estudia ahal dezatela lortzea.*

## AGINTARIEN ERITZIA

*Ikasleen mobilizapen horren eraginez, ekainaren 14ean prentsaurreko elkar hizketa bat antolatu zuten unibertsital agintariak Bilboko errektoretxean. Bertan, agintariok agertu zituzten eritzi batzu adieraztea, interesgarri dateke.*

*Agintariak, Medikuntz Fakultateko dekanoden Rene Sarrat jaunaren ahotsaren bitartez, selektibitatearen eta "numerus clausus" delakoaren alde azaldu ziren.*

*Honela mintzatu zen aipatu dekanoa:*

*"Lehen erremedioa, benetako bokazio eta kapazitatea duten ikasleentzako "numerus clausus" baten ezarpena da. Eta hau lehen unetik posible ez delarik, karreraren lehen kurtsuan egin behar da, selektibitatea medikoak diren gaien bidez eginik".*

*Azkenik, eta selektibitatearen ezarpenaren gogortasuna nolabait biguntzeko, datorren urteko otsailean bestelako examina extraordinarioak egonen esan zuten.*





# amnistiaz

"Orain, ordea, lege oroz gaindi, Jainkoak amnistia bat eman du, lege eta profetak egiztatua izan dena eta Jesukristogan dugun fedeagatik ematen zai-guna, fede hori duten guztiei eman ere, inor bereizi gabe" (Errom. 3,21-22).

L.A. Schökel-ek eta J.Mateos-ek egin duten Bibliaren azken itzulpenean (gaztelaniara), Jainkoaren "amnistia" aipatzen da lehen "Jainkoaren zuzentasuna" irakurri ohi zen tokian. Amnistia hitza egokia-go dateke grekozko "dikaiosyne" adierazteko. Itzulpen iraultzailea, noski, bai exegesi mailan eta bai politika mailan. Alde batetik, Jainkoaren barkamenduak Testamentu Berrian duen sentidu jatorra garbiago ageri da. Bestalde, berriz, gizarte mailan eman ohi den amnistiaren ebanjeliozko erroak nabarmen geratzen dira.

Testamentu Berriko barkamenduaren lengoaia itzultzeko modurik egokiena "amnistia" hitza baldin bada, esan nahi da, amnistia politikoak zerikusit handia duela ebanjelioko Jainkoarekin, hots, Jesusen Jainkoarekin.

Alabaina, Jainkoaren barkamenduz eta amnistiaz mintzatzea sarkasmo hutsa gerta daiteke, giza mailan inolako amnistiarik ez dagoenean. Hori, ogi eske datorrenari "Jainkoak goarda zaitzala" esatea bezalatsu litzateke, bienbitartean esku hutsik bidaltzen dugularik. Mirakuiluak aparte, Jainkoak ezin diezaioke ogirik luza gose denari, gizonen baten eskuz ez bada. Orobat, "Jainkoak barka zaitzala, ez nik" esatea, Jainkoari eskuak lotzea bezalatsu da eta ahoz dioguna bera nolabait gezurtatzea.

Jainkoaren barkamenduan fede duenarentzat, amnistiaren erakuntzak eta ihardunbideak gauza nabaria izan behar luke. Baita Jainkoaren barkamendua eta horrelakoak mito nahiz ideologiatzat jotzen dituenarentzat ere. Zeren ideologia eta mitoen artean ere ba dira hobeak eta txarragoak. Eta askotan mito on batek edota utopia itxurazko batek arrazoiaketa zorrotz batek bezainbat eta gehiago balio dezake.

Bestalde, amnistia are premiatsuago bilakatzen da, delako "bekatua" behar bezala frogatu gabe dagoenean, gurean gertatu ohi denez. Gainera —eta gu hemen teologiaren ikuspuntutik batik bat ari garen ez gero— Jainkoak bakarrik juzka dezake aldetik alde gizona, beronen erruan ala zuzentasunean. Tesi honek, besterik gabe, giza zuzenbide oro errotik erlatibizatua uzten du, gizonak ez bait dezake eman sekula erabateko eta behin betiko epairik.

Batzutan, delitu politikoak, nahiz eta legedi baten barruan zigortuak egon, giza eskubideen ihardunetik datozen ondorioak izan ohi dira. Horrelakotan, amnistia lehen pauso derriorezkoa gertatzen da legedi hori gizartearen kontzientziara egokitzeko.

Baina orduan arazoa are nahasiago bihurtzen da. Zeren amnistia orduan ez bait da emalearen bihotz handitik datorren zerbait, hiritarren kontzientziak eskatzen eta exijitzen duen zerbait baizik. Amnistia moral eskakizun bilakatzen da orduan.

Horrelakotan, amnistia ezin liteke fabore bezala konsidera, emaleak honela hitz eginen balu bezala edo: "Barkatua hago, gizon. Hoa eta ez hadi berriro jausi. Libre hago eta irten haiteke kalera. Hemendik aurrera, gure adiskide izanen haiz". Amnistia hitzak, aldiz, beste gisa honetakoak beharko lukete: "Barka gaitzak, adiskide. Ez genekian zertan ari ginen hiri libertatea kendu genianean. Hire amnistiaren ere beharrea gaituk, horrela denon artean, mendekurik gabe, gizarte hobea egin dezagun".

Ba dirudi, amnistia beti garaileak emana izan behar duela, garaitua izan denari bizia bihotz handiz barkatuko balitzaio bezala. Amnistia, kasu horretan, gailen irten zirenen eta agintean daudenen bihotz zabaltasunaren emaitza litzateke.

Ebanjelioaren arnasean, alabaina, gauzak beste-la ikusten dira. Zeren eta amnistia eman zaiona ez bait da zordun soilik, beti ahozabalik eskerrak ematen egon behar bailuan. Amnistia jaso duen menperatua hartzekodun ere ba da, jasan dituen kalteen truke ordaina eta rehabilitazioa zor bait zaio. Halako batez, garaileak barkazioa ere eskatu behar luke, garaitzapenez baliatu delako, hain zuzen.

Jose Altuna







# POSTAZ ETORRIAK

ANAITASUNAREN zuzendari lankideorri!

Orain bi urte-edo dira, zuk idatzten duzun euskal adizkariaren harpidedun naizela, eta azken aleetan ikusi eta irakurritakoak erabat harritu nauela esatera natorkizu.

Kritika orokor bat egin ahal baldiz ere, ez da hori lerro hauk idaztera bultzatu nauen asmoa, azkenaldi hontan nabarmen den joera konkretu bat haizitan jarzea baidzik.

Hasi aurretik esan behar dizut kazetaritza ene bokaziotzat hartu dudala, bai eta ANAITASUNAN behin baino gehiagotan idatzi dudala ere, nahi nukeen bezain sarri izan ez arren.

Goazen harira. Exenplu bat baino ez aipatzeko, permiti bekik maiztaren Ieko 316. zenbakia antikomunismo gogorrenaz kutsaturik agertzen dela esatea, ausartzia haundiegia ez bada behintzat. Hortaz jabetzeko, aski da "Sukurtsal alderdirik ez dute nahi Galizian" -izenpetu gabekoa- eta Xabier Armendaritzen "Fitxaketak" izeneko artikuluei begirada bat botatzea. Artikulu bietan, komunista bat benetako euskaldun -edota euskaldun bat marxista- ezin izan daitekeelako ondorio logikoa ateratzen da, "euzko bunker" zaharraren amets urregorritatua birpiztuz.

Esan beharreko beste gauza bat da, Euskadiko Gazteria Komunistakoa izateagatik T.O.P. delakoa epaitua eta kondenatua izan naizela, orain egun batzuek, delitu beragatik, beste prozesu bat leporatu ditudelarik.

Pentsatu nahi nuke, gertakaria hau idazle baten zein besteren ideologiaren produktua besterik ez dela, baina sinesgaitz gertatzen zait berau, zeren -eta hemen esplika-zio pertsonal bat eskatuko nizuke- Antton Abad-ek aspalditxo bidali zizuen idazlan bat (Euskadiko Bazar Demokratikoari buruzkoa bera), ANAITASUNAREN idazle kontseiluaren aldetik argitaratzeko baimena errezibitu ondoren, ez baita oraindik publikatu; holaxe gertatu da, dirudienez, Kriseluko Luis famatu baten artikulua batekin, Nafarroaren arazo hain eztabaidatuaz mintzo zena berau. Kasu bietan basterre esplikaziorik eman gabe.

Ez deritzat arraz aproposa jokabide honi, euskal eritzi eta korronte politiko guztientzako zabalik egon behar lukeen aldizkari buten

aldetik. Zeren eta ANAITASUNAK, inongo alderdi politikorena ez izanik, denona izan behar baitu, hieburutzat objektibitatea baldin badu. Bestalde, uste dut Armendaritz jaunak ba dituela beste kazeta batzueuskal komunisten kontra librekiago idazteko, ANAITASUNA baino.

Erregimen demokratiko batean izanzen dugu euskaldunok besteak atakatzeko aukerarik franko, nahiz eta herriak zer bide segitu nahii duen erabaki beharko duen. Hain zuzen ere, herriak azken hitza izan behar duenez gero, herriaren legitimizea besterik ez dut onhartzen, eta ez edozeinek egin lezakeen politikafikzio baten fruiturik; oso erraza baita, gainera, kontrakoari eraso egitea, beronek bere burua defendatzeko harmarik -kasu hontan horrialderik- ez duenean.

Baina Demokrasiara heldu ez gavelarik -...ala bai? -, eta benetako etsaiak beste batzuek ditugunez gero, erabat kaltegarria deritzat, gure ahaleginak hauen aurka bateratu beharrean, elkarri harrika hasteari. Are kaltegarriagoa, euskal kulturaren alorrean, euskal kazetaritza bizkortzeko beso eta huna guztiak bateratu beharko genituzkeen une hontan.

Bukatzeko, eta Armendaritz jaun ezezagunak artikulua bikain horren bidez isiltasuna urratu baitu, hari publikoki erantzun nahi nioke, hortarako ANAITASUNAKo horrialdeak erabiltzea uzten bazait... eta Madrileko zentsurak permititzen baldin badit, Kontrakoa ez litzateke xuxena. Paralelismo arriskugarriegia gerta liteke -Solzhenitsinen kasua daukat gogoan- ANAITASUNA eta RTVEren artean, bati bai eta besteari idazten ez utzirik.

Oker nagokeela sinetsi nahi nuke.

Besterik gabe, eta karta hau bederen publikatuko didazuela koan, har ezazu argu bero bat.

Josu Cepeda

## ZUZENDARITZAREN OHARRA

**FITXAKETAK** eta **SUKURTSAL ALDERDIRIK EZ DUTE NAHI GALIZIAN** artikuluetatik atereaz ANAITASUNARI ere ezarri nahi dizkiozun "ondorio logiko" horiek zeureak dira, eta zeureak bakarrik.

Bi artikuluo ideologiaz ez baino jokabide politikoaz ari dira. Salatzzen dena sukurtsalismoa da, aipatu alderdiok Madrilen sukurtsal izatea. Ez da planteatzen euskaldun izatearen eta marxista edota komunista izatearen arteko harremanen teoria mailako arazorik. Hori bateko. Eta besteko, artikulugilearen eta errebista beraren eritziak ere arreta handiagorekin bereizi behar dira, salakuntza frogatugabeko eta paralelismo errazegietara jo aurretik. ANAITASUNAK zabal eta ireki jokatatu nahi du, baina bere eritzi eta jokabideen jabe eta erantzule da.

Azken bi puntu, bukatzeko. **SUKURTSAL ALDERDIRIK EZ DUTE NAHI GALIZIAN** idazlana izenik gabe argitaratzearen errua, maketagilearena da. Egilea, Amaitermin jauna da. Eta azkenik, Zuzendariari esplikazio pertsonalak eskatzeraino iristen zaren horrek jakin zazu Antton Abaden artikulua berri horren eman zitzaioala egileari berari, eta "Kriseluko Luis famatu" artikulua berririk ez duela Zuzendaritza honek.

ANAITASUNAKo zuzendariari agur!  
**ZORIONAK!**

Bai. Orain dela hilabete bat pasatxo asarre xamar idatzi ba nizun ere, (aldizkariaren 317. zenbakian argitaratu zenuen nire eskutitza), oraingo hontan pozik egiten dut.

Maiatzean, kritikalarri azaldu nintzen, ANAITASUNAK langile arazoak hain urri erabiltzen zituelako. Gaur, berriz, hartu duzun bidea txalotu nahi dut.

317. eta 318. aleetan langile tematikazko artikulua ugaritu ba ziren ere, 319. go zenbakia langile burrukei orri mordoxka bat eskaini die eta, espero ez nuelako edo, harritu ere egin naiz, egia esateko.

Zorionak, berriro, eta jarrai ekin diozuten bide honi.

I.K.

Bilbon, 76-Ekaina-19





## HIZKUNTZA

- AHANTZ(I): ahaz (tu).
- AHALPIDE: pastoreo.
- ALDARRIKA(TU): proclamar, -ado
- APUR: ttiki, guti.
- ASKE: libre, solte.
- ATXEKITASUN: adhesión.
- AZTARNA: aztarren, arrasto.
- BERREZARR(I): berriz ezarr(i).
- BILKURA: bilera, batzarre ttikia.
- BILERA: bilkura, batzarre ttikia.
- BIRLOT(U): berriro lot(u).
- BURUGAINTASUN: autonomía.
- DATORKIGUKE: datorkigu, ia segurki.
- DIRAU: irauten du.
- DOHAIN: mesedez, fabore.
- EBAKUNTZA: operazio, mozqueta.
- EDUKI: euki.
- ERAHIL: hil, erhan.
- ERAKUNDE: organización.
- ERRAN: esan.
- ERRESUMA: reino.
- ESTAMENTU: estamento.
- ETSIGARRI: decepcionante.
- EZAGUTZAPEN: conocimiento.
- EZTEUSETARA(TU) desegin.
- GANIBET: cuchillo.
- GARRANTZI: importancia.
- GIZAKI: pertsona.
- GOMENIO: convenio.
- GORTE: corte.
- GUDU: burruka.
- GUTUN: eskutitz.

GURE HARPIDEDUN ETA  
IRAKURLEOI OHAR BAT

Urtero bezala, "ANAITASUNA"n lan egiten dugunok oporrak izan ditzagun, gure urrengo alea Abuztuko bigarren hamabostaldian agertuko da. Urrengo arte, ba, eta... oporraldi onak denontzat.

- HARMA: arma
- HARREMAN: relación.
- HARRERA: abegi, onhartze.
- HITZARMEN: compromiso.
- HONDAKIN: hondar, kondar.
- IKASTURTE: año escolar, curso.
- INKESTA: encuesta.
- IRAUNGI: itzal(i), hif, amai(tu).
- KOMENTZIO: convención.
- KOMISALDEGI: comisaría.
- KONDAR: hondakin.
- KONNOTAPEN: connotación.
- KONTRAESAN: contradicción.
- KIXKUR(TU): biribil (du), makur(tu).
- LEGE ITUNDU: ley paccionada.
- LERABILKETE: erabiliko lukete.
- LETZAKE: eztzanen litzateke.
- MENDEHURREN: centenario.
- MENGANTZA: venganza.
- ÑABARDURA: matiz.
- OT(U): ocurrirsele a uno, -ido.
- PATRIKA: patrikara, boltsiko.
- PREZESKI: hain zuzen ere.
- TRIKU: kirikino, sagarroi.
- TXOSTEN: informe, ponencia, comunicado.
- ZUZENGOA: zuzenbide, zuzen, derecho.



**Herriarekin. Herriarentzat.**



**Caja Laboral.**



**CAJA LABORAL POPULAR  
LAN KIDE AVREZKIA**



# Jadanik

**105 bulego ditugu prest zuretzat  
eta, gainera, 50 zerbitzu ezberdin  
baino gehiago, guztiok zuri  
eskaintzeko.**

**Baina, hala ere, gehiago jaso nahi ditugu  
Eta lortuko ditugu.**



*Hemen irabazi guztiak zuretzat dira*